DURANGALDEA 2027 • LOS CABALLOS ROJOS DE ASKONDO
PATRIMONIO EN PELIGRO • DURANGOKO EMAKUMEEN KARTZELA



# astola

## ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

**5**.zk 2011 5€




01.




02.




03.




04.




**astola**

*Edizio elektronikoa:*
**www.gerediaga.com**

**5.zk**
**2011ko urria**

Astola iritzi orori zabalik dagoen aldizkaria da,
horrek ez du esan nahi artikuluen sinatzaileekin bat datorrenik.

**Erredakzioa, publizitatea eta administraritza:** Gerediaga Elkartea, Larrasoloeta, 3 48200 Durango, Tel. 94 681 80 66, Faxa: 94 621 80 23, e-mail: gerediaga@durangokoazoka.com, www.gerediaga.com • **Koordinatzailea:** Txelu Angoitia • **Erredakzio kontseilua:** Jose Mari Uriarte, Jon Irazabal, Izaskun Ellakuriaga, Nerea Mujika • **Argazkia:** Txelu Angoitia • **Publizitatea eta administraritza:** Aitziber Atorrasagasti • **Dokumentazioa eta banaketa:** Esther Garcia, Esther Soto • **Diseinua eta maketazioa:** www.di-da.com • **Inprimategia:** Gertu koop. • **Lege gordailua:** SS-1525-07 • **ISSN:** 1888-234X

© Argitalpen honena, Gerediaga Elkartea 2011
© Testua eta argazkiak, egileena

# sumarioa




**06·** LABURREAN **12·** LOS CABALLOS ROJOS DE ASKONDO / DIEGO GARATE MAIDAGAN / JOSEBA RIOS GARAIZAR **26·** DURANGOKO EMAKUMEEN KARTZELA / MARIA GOROSARRI **42·** ARRIA: LA ENERGÍA DE UN RIO / MAITE IBAÑEZ **60·** DURANGALDEA 2027 / HAINBAT EGILE **80·** DURANGO: ESTACIÓN CENTRAL / JOSE MARI URIARTE **94·** ERREBONBILOAK: BOLBORA USAINA / KARLOS ERIZ **110·** PATRIMONIO EN PELIGRO / JON IRAZABAL **122·** BIZKAIKO ZUZENBIDE ZIBILA DURANGALDEAN / GONTZAL AIZPURUA **136·** PETROLEO EN ELORRIO / LOREA MADINA **148·** BARRUKO IBILBIDEAK **162·** ATXONDO: HIRURAK BAT / OIHANE BURUAGA DE SANCHA **174·** BIBLIOGRAFIA



# edit

**"Tempus fugit"**, y han pasado ya cuatro años desde que a finales del 2007 un viejo sueño de GEREDIAGA se materializó en el primer número de ASTOLA.

Desde entonces, más de 40 artículos de reconocidos autores, casi 700 páginas, 900 fotografías e incontables horas de trabajo, investigación y discusión, se han plasmado con aciertos y errores en cuatro anuarios.

Con la misma ilusión del principio, os invitamos en este 5º número a un viaje en el tiempo. La estación de partida, la cueva de ASKONDO, donde hace más de 25000 años ya se expresaban nuestros primeros artistas locales.

El destino, el futuro cercano de la comarca reflejado en el PLAN TERRITORIAL PARCIAL que ahora se elabora. Y en el itinerario, varias escalas que nos harán conocer mejor la tierra que habitamos.

Porque ésa es nuestra vocación como revista y como asociación: recuperar nuestra memoria para, a partir de ella, contribuir en nuestra medida a diseñar la Durangaldea que entre todos soñamos, que no es otra cosa que el mundo que entre todos soñamos.

**Gracias a todos los que de una u otra forma nos acompañáis en este viaje.**

# toriala

**“Tempus fugit”**, eta dagoeneko lau urte igaro dira 2007. urte bukaeran GEREDIAGAren aspaldiko ametsa gauzatu eta ASTOLA aldizkaria plazaratu zenetik.

Ordutik hona, hanka sartuta batzuetan, eta bete-betean asmatuta besteetan, egile ezagunen 40 artikulutik gora, ia 700 orrialde, 900 argazki eta makinatxo bat lan-ordu, ikerketa eta eztabaida agertu dira lau urtekaritan.

Hasierako ilusioari eutsita, 5. ale honetan denboran barrena bidaia egiteko gonbita luzatzen dizuegu. Abiagunea ASKONDO kobazuloa izango da, duela 25.000 urtetik gora hantxe adierazten baitzuten euren burua tokiko lehenengo artistek. Jomuga, berriz, eskualdearen etorkizun hurbila izango da, orain egiten ari diren LURRALDE PLAN PARTZIALEAN islatzen dena. Eta bidean, hainbat geldialdi egingo ditugu, bizi garen lurraldea hobeto ezagutzeko.

Aldizkari eta elkarte garen heinean, horixe baita daukagun bokazioa: gure memoria berreskuratzea, hortik abiatuta guztiok amesten dugun Durangaldea diseinatzen laguntzeko, finean, guztiok amesten dugun mundua baita.

**Eskerrak eman nahi dizkizuegu, beraz, modu batean zein bestean bidaia honetan lagun egiten diguzuen guztioi.**



Bizkaia Aurrezki
Kutxaren
Durangoko
sukurtsal zaharra,
1927. urtean eraikia
Diego de Basterra
arkitektuaren
diseinuaren arabera.







# BBK
# BETIDANIK
# DURANGALDEAN

# LABURREAN

## BONBARDAKETAKO ETA FRANKISMOKO BIKTIMEN OROIGARRIAK | OTXANDIO - BERRIZ



Otxandioko herriak 1936. urteko uztailaren 22an frankisten bonbardaketako biktimak gogoratzeko Nestor Basterretxeak egindako oroigarria jarri du Andikona plazan. Zigor Olabarriak idatzitako "Gerra zibila Otxandion" liburua ere argitaratu da.

Berrizen, bestetik, 1937ko irailaren 11n fusilatu zituztenak eta gerora kartzelan hil ziren herritarrak gogoratzeko oroigarria ipini dute Oroimenaren Bidean.

Argazkia: *Txelu Angoitia*

## EUSKADI LITERATURA SARIA




Joseba Sarrionandia idazleak euskarazko entsegu lanari dagokion Euskadi Literatura Saria eskuratu du "Moroak gara behelaino artean?" liburuari esker. Ikerketa lan honetan Hilarión Sarrionandia bere familiakoaren pausuak jarraitu ditu eta Afrika iparraldean kultur mundu ezezaguna eta anitza erakutsi digu. Sariak polemika ere ekarri du, Eusko Gobernuak, sarituari ematen dion diruordaina bahitzeko erabakiagatik. Joseba, orain dela 26 urte, Martuteneko kartzelatik ihes egin zuenetik exilioan bizi da.

Argazkia: *R.R.Calleja*

## URTE OPAROA FOLKLORERAKO

**Folkloreak albiste asko utzi dizkigu urte honetan.**

**Tronperri Dantza Taldeak 50 urte** bete ditu eta ekitaldi diferenteekin ospatu dute. Taldea 1961. urtean sortu zen, mutilen talde batekin eta Eduardo Ryan abadearen zuzendaritzapean, San Frantzisko komentuan. Beranduago neskak ere taldean hasi ziren. Merinaldeko eta Euskal Herriko dantzak erakutsi dituzte urte guzti hauetan.

Iurretan ere herriko **bandera zaharraren 100. urteurrena** dela eta ospakizunetan ibili dira. Banderaren historia biltzen duen erakusketa eta liburuxka-dokumentala prestatu dituzte.

Omenaldiak ere izan dira. Euskal Herriko Txistulari Elkarteak urrezko domina banatu die **Karmelo Barruetabeña eta Joan Antonio Aroma** txistulariei. Biak ere hamarkada luzetan eskualdeko plazatan ibili dira Dantzari Dantzari doinua jartzen eta eskualdetik kanpo bertoko soinuen mezulari.








Ekainaren 4ean Bizkaiko eta Euskal Herriko Trikitilari Elkarteak **Jose Jabier Abasolo "Tiliño·"** iurretarra omendu zuten. Tiliñok, 1974tik 1999ra, Iurretan aintzinako musika tresna joleen eguna antolatzen egindako lana eskertu zuten bera omenduz.



*Argazkiak: Txelu Angoitia*

## AGUR BITTOR KAPANAGA | OTXANDIO




85 urte zituela uztailaren 14an agurtu genuen Bittor Kapanaga Elorza. Gerediaga Elkartea sortu zenetik alboan izan dugu lanean eta laguntzen. Otxandion kultur ekintza askoren sustatzaile izan da idazlea eta euskararen jatorriari buruzko teoriak ere plazaratu ditu. 1997. urtean Argizaiola Saria eman genion herri ohiturak batzen, herri kulturgintza sustatzen eta euskararen alde egindako lana eskertzeko.

*Argazkia: Txelu Angoitia*

## AZOKA KULTURALA | ELORRIO



Ekainean azoka interesgarriak egin dira Elorrion: Antzinako Ogibideen V. Azoka , Sanagustinetxebarriko eliza inguruan, eta XI. Azoka Kulturala Elorrioko plaza eta elizpean. Ogibideen Azoka bi urterik behin egiten da eta Olazar auzo elkarteak antolatzen du. Azoka Kulturala, berriz, Agustin Urizarrek antolatzen du urtero eta antigualekoak, bildumazaleak, objektu kuriosoak dira nagusi eta bigarren eskuko liburuak, aintzinako jostailuak, apaingarriak, filatelia edota kotxe klasikoen erakusketa tarteko izaten dira.

*Argazkia: J.M. Uriarte*

## DURANGALDEKO BONBARDAKETA AIRETIK



Aurten Durangaldeko historian garrantzia handiko dokumentuak eskuratu ditugu Gerediaga Elkartean. 1937ko martxoaren 31n Durango eta Elorrio italiarrek nola bonbardatzen zuten agerian uzten duten argazkiak ekarri ditugu Erromako "Ufficio Storico dell Stato Maggiore del"Aeronautica Militare"retik.

Ez dira argazki bakarrak izan; Bizkaiko beste herri batzuetako bonbardaketako argazkiak ere eskuratu ditugu: Mañaria, Otxandio, Elgeta, Igorre, Lemoa, Galdakao, Berriatua, Derio, Gernika, Portugalete, Bilboko portua... Argazki guztiak italiarrek airetik, bonbardaketa momentuan ateratakoak dira, 1937ko martxoaren 31tik ekainaren 19ra bitartean.

Argazki gehienak ezezagunak ziren eta balio historiko handia dute, Bizkaiko erasoetan italiarren partehartzea hobeto ezagutzeko aukera ematen dutelako.













# Iurreta

erdu gugana!

# OPORRIK ONENAK NAHI DITUZU GUK DITUGU GUZTIAK




INFORMAZIOA ETA ERRESERBA

ERMODO S/N - TEL 94 6200447

ZUMARRAGA, 20 - TEL 94 621 5400

Seguro que te vas

VIAJES IBERIA

BAL - 001 -MM

# LOS CABALLOS ROJOS DE ASKONDO

## el arte prehistórico oculto en Mañaria




TEXTO: **DIEGO GARATE MAIDAGAN / JOSEBA RIOS GARAIZAR**

FOTOS: **TXELU ANGOITIA / EQUIPO DE INVESTIGACIÓN**



La cueva de Askondo se localiza en el barrio de Urkuleta del municipio de Mañaria en pleno corazón de Durangaldea. La boca se abre en la falda W del monte Asko, en las estribaciones de las calizas infracretácicas entre el macizo de Eskuagatx y del Untzillatx. Es un paisaje bello pero contradictorio, entre la naturaleza del Parque Natural de Urkiola y la crudeza de la disección provocada por las canteras.

El nombre de la cavidad viene dado del caserío cercano, a una cota ligeramente más alta respecto al valle inferior por el que discurre el arroyo Urkuleta y en el que se erige la ermita de San Lorenzo. El nombre también está relacionado con leyendas mitológicas sobre las "lamiak" que habitaron la cueva o con la caza del último oso de Bizkaia, abatido a finales del siglo XIX.

La cueva ha sido afectada por la actividad extractiva de una cantera en desuso al menos desde hace 40 años. Otro factor que ha supuesto una alteración profunda de la cavidad y de su posible yacimiento es la acción de furtivos. La intervención incontrolada en Askondo ha sido denunciada desde hace décadas, hasta el punto que algunas galerías han sido incluso cuadriculadas y numeradas, para dotar de una mayor precisión a su detestable labor.

La primera incursión de carácter científico en la cavidad, fue realizada por Gálvez Cañero a inicios del siglo XX, encontrando escasos restos arqueológicos mediante un sondeo. En 1963 se localizan dos cráneos de Ursus spelaeus por parte de Jean Serrés y, a partir de entonces se da inicio a la destrucción incontrolada del patrimonio paleontológico de la cueva de Askondo.

El día 9 de enero de 2011, en el marco de un proyecto de investigación sobre el poblamiento paleolítico en el interior de Bizkaia, se procedió a localizar y visitar algunas cavidades que en la bibliografía figuran como destruidas.

En concreto, un equipo formado por los arqueólogos D. Garate Maidagan, J. Rios Garaizar y A. Ugarte Cuetara, localizó y visitó la cavidad de Askondo. Como resultado de la visita se localizaron una serie de evidencias que ponían de manifiesto la presencia de arte parietal paleolítico en su interior.

Puede resultar sorprendente que una vieja conocida de espeleólogos, arqueólogos, excursionistas, etc. haya mantenido inédito su "secreto" hasta la actualidad. El mal estado de conservación de las pinturas o la escasa visibilidad de los grabados hace que puedan pasar desapercibidos durante décadas. Solamente una buena iluminación y un buen conocimiento de lo que se busca y cómo se busca permiten sacar a la luz descubrimientos como el que presentamos. Fijar la luz en un punto preciso y con una inclinación concreta, y saber identificar o relacionar lo que se está viendo con paralelos ya conocidos en otras cavidades requiere una experiencia previa adquirida tras muchos años de estudio. De todas maneras, son muchos los precedentes similares, siendo el de la cueva de El Pendo, en Cantabria, el más claro. Conocida desde el siglo XIX y excavada por los principales arqueólogos de Europa, el friso del vestíbulo principal de 8 metros y con 14 ciervas rojas no fue detectado hasta el año 1997. Un caso más cercano es el de la cueva de El Rincón en Karrantza, mencionada ya en 1911 en el libro de *Les cavernes de la región cantabrique* pero cuyo arte rupestre no fue descubierto hasta 2004, exactamente un siglo después de la primera visita científica.



Interior de la cueva de Askondo. *Txelu Angoitia*


1
3M7


2
3M7


1


2


1


2










Proceso infográfico para la visualización de las pinturas encontradas.

Las evidencias arqueológicas detectadas se localizan en el primer tramo de la cavidad, de más de 300 metros de desarrollo. No parece que la entrada original se alejase en exceso de la actual por lo que la mayoría de las evidencias parietales quedarían en una zona de penumbra, característica que se repite en algunos de los conjuntos rupestres cantábricos (La Pasiega B, Altamira, Cualventi, Salitre, El Pendo, Fuente del Salín, etc.).

Son más de una docena las figuras y otros elementos parietales detectados, principalmente en el vestíbulo situado al fondo de la entrada, antes de acceder a la zona profunda de la cavidad:

- Cinco caballos pintados en rojo. Dos de ellos completos pero muy mal conservados, se sitúan en dos alturas y orientados a la izquierda. Un tercero se reduce a la parte anterior del animal, incluyendo la crinera, las orejas en paralelo y el morro muy sinuoso. A escasa distancia del anterior se reconocen restos de otra cabeza. Un último caballo ha perdido la cabeza y las patas aunque originalmente presentaba un formato completo. En todos los casos se trata de figuras de gran tamaño (entre metro y medio y dos metros).

- Un caballo grabado con trazo fino y de pequeño tamaño. Parece ser una representación completa del animal.

- Una mano en positivo pintada en rojo. Contiene todos los dedos y restos de la palma.

- Una serie de dos trazos pareados situados junto al motivo anterior.

- Un punto rojo, posiblemente realizado con el dedo, localizado ligeramente por encima de las dos evidencias anteriores.

- Una línea cérvico-dorsal de animal trazada en rojo y totalmente embebida en lasa formaciones de calcita que recubren la pared. Posiblemente se trata de vestigios de una figura más completa.

- Una serie de grabados subverticales no figurativos y de surco ancho.

- Un hueso de animal introducido en una oquedad de la pared a dos metros de altura.



Todas las evidencias cuentan con paralelos muy claros en el arte gravetiense y solutrense (hace 28.000 a 18.000 años), ofreciendo una sólida coherencia interna. El caballo de morro sinuoso es característico de dicho periodo en cuevas francesas, españolas y portuguesas. Los trazos pareados son un tema que caracteriza el arte cantábrico anterior al Magdaleniense, es decir, más de 14.000 años (cuevas de La Lloseta, Tito Bustillo, Castillo, La Garma, Peña Candamo, etc.). Las manos están muy presentes en los conjuntos parietales del gravetiense francés –con algunos casos en el Auriñaciense y en el Solutrense- y, en menor medida en el Cantábrico. La práctica de introducir huesos en las grietas de las paredes es especialmente recurrente en contextos gravetienses. Así se ha datado en el caso de Gargas (Hautes Pyrénées, Francia) y ligeramente más antigua –Auriñaciense- en el caso de Altxerri (Aia, Gipuzkoa). Es decir, son muchos los datos que apuntan hacia una cronología Gravetiense o quizás Solutrense, para el arte parietal de la cueva de Askondo.

Tras los descubrimientos mencionados, la cueva de Askondo ha sido clausurada para poder salvaguardar su contenido patrimonial. Asimismo, ha sido declarada Bien de Interés Cultural de manera automática, tal y como recoge la legislación para los hallazgos de arte rupestre. Un próximo paso será el estudio exhaustivo de la cavidad, comprendiendo tanto la prospección de las paredes para localizar nuevas pinturas o grabados, como el sondeo del vestíbulo en busca del yacimiento arqueológico.

Trabajando en la cueva. *Txelu Angoitia.*



El arqueólogo junto a una de las pinturas. *Txelu Angoitia.*

Por el momento, en nuestro estado actual de conocimiento de la cavidad, podemos señalar que se trata de un conjunto modesto en lo referente a la espectacularidad y cantidad de figuras, pero son evidentes una serie de características que ponen de manifiesto la relevancia e interés científico del hallazgo:

- Se trata de la quinta cueva con arte parietal paleolítico localizada en el territorio histórico de Bizkaia. Venta Laperra (1904), Santimamiñe (1917), Arenaza (1963) y El Rincón (2004) son las restantes. Las cuevas de Atxuri, Antoliña y El Polvorín, están pendientes de un estudio detenido que lo determine (imposible en la primera por hallarse destruida). Los grabados de la cueva de Goikolau responden a una cronología muy posterior. En Gipuzkoa eran conocidas las cuevas decoradas de Ekain y Altxerri y, en los últimos años, han sido descubiertas las de Praile Aitz (2006) y Astigarraga (2009). En Cantabria y Asturias las cuevas decoradas son más de medio centenar en cada una de ellas.

- Por la cantidad de grafías animales la cueva sería la tercera en importancia dentro del Territorio, junto a la de Venta Laperra, y por detrás de Santimamiñe y Arenaza.

- La cueva decorada se encuentra en la zona interior del Territorio Histórico de Bizkaia, un hecho insólito excepto en Encartaciones, y viene a cubrir un espacio geográfico en el

que se tiene constancia de un poblamiento paleolítico más o menos intenso (Bolinkoba, Atxuri, etc.), aunque mal conocido, y en el que hasta el momento no se conocía ninguna cueva decorada (se había señalado una posible figura roja en la cueva de Atxuri, pero su destrucción por parte de una cantera y la ausencia de documentación gráfica impiden corroborarlo).

- Durante los últimos años se ha alimentado la idea de la existencia de un <espacio vacío> para el País Vasco en lo que se refiere a la dispersión del arte parietal anterior al magdaleniense (hace 14.000 años), alegándose un posible déficit de investigación en la zona. Así parece ser en función de los últimos hallazgos de pinturas atribuibles al Solutrense –quizás Gravetiense- en Praile Aitz y en Astigarraga, a los que ahora añadimos Askondo. Casualmente estas dos últimas cuevas presentan varios elementos comunes (trazos pareados y huesos hincados, aunque en la primera no existen animales representados). Es decir, Askondo supone la principal evidencia de que en el País Vasco también hubo arte parietal en momentos anteriores al Magdaleniense, quizás modesto y poco productivo.

- Respecto a las similitudes, algunas son de carácter mayoritariamente pirenaico (huesos hincados), pero la temática es muy próxima a las cuevas de Altamira y La Pasiega B en el cantábrico central y el morro sinuoso de uno de los caballos está presente en cuevas del norte de Francia, de la Dordoña, del Quercy, del Ródano, de los Pirineos, del Cantábrico o incluso de la Meseta, Portugal y sur de la Península. Es decir, el abanico geográfico de influencias es realmente amplio, tal y como caracteriza al arte parietal gravetiense. Se trata de una cueva rica en elementos comparativos y que, por lo tanto, entra de lleno en los principales debates que se plantean sobre el inicio de la actividad gráfica parietal en Europa.



Colmillo y cráneo de oso de las cavernas encontrados en Askondo. Equipo de investigación (colmillo), Hontza Museoa. Mañaria (cráneo)



Punta tipo "Isturitz" encontrada en Askondo. Se trata de un proyectil trabajado en hueso con una serie de estrías horizontales en su extremo inferior. Es una herramienta característica del periodo Gravetiense (28.000 a 20.000 años) y aparece mayoritariamente en yacimientos pirenaicos, especialmente en Isturitz (Behe Nafarroa) de donde adopta su nombre. *Hontza Museoa. Mañaria.*




Plano de la cueva de Askondo.

Todavía queda un largo camino de investigaciones que, con toda seguridad, aportarán más información sobre la cueva de Askondo. Mientras tanto solamente cabe congratularnos todos por la posibilidad de recuperar una muestra tan antigua y valiosa de nuestra Historia. Felicitarnos, pero sobre todo reflexionar, porque la misma casualidad que nos ha llevado al inesperado descubrimiento, podría haber derivado en su destrucción para siempre por parte de la cantera cercana, de la que solamente dista una docena de metros. a

# ASKONDO Y LA SOCIEDAD hace 25.000 años



Pintura de un caballo encontrada en la cueva de La Pasiega (Cantabria).

Por el momento no tenemos evidencias sobre las forma de vida de los pintores de Askondo, no sabemos si la cueva se utilizó con otros fines o si solamente sirvió como lugar de culto o donde desarrollar actividades sociales más allá de la mera subsistencia. De todas maneras, al otro lado del monte Untzillatx un grupo de humanos habitó la cueva de Bolinkoba en una época cercana a la decoración de la cueva de Askondo. En ella dejaron vestigios de su presencia que nos han permitido reconstruir las principales características de dichas sociedades. Nos referimos a seres humanos anatómicamente idénticos a nosotros pero con unos conocimientos tecnológicos distintos y menos amplios. La caza de animales y la recolección de frutos y semillas eran las actividades económicas prioritarias. El clima, extremadamente frío, condicionaba un paisaje vegetal muy escaso y una fauna de gran tamaño como el megacero (gran ciervo) y el mamut. De todas maneras, la caza se centraba en animales fácilmente abatibles como cabras y ciervos, mediante proyectiles de pedernal y el asta. Además, los pequeños grupos que habitaron Bolinkoba hace 25.000 años de manera intermitente, crearon pequeños adornos y colgante con dientes de ciervo y conchas perforadas, auténticos prototipos de los collares, pendientes, etc. que lucimos hoy en día. Aunque muy alejados de nosotros en sus labores diarias y en los materiales disponibles, no cabe duda de que compartimos con ellos preocupaciones y preguntas que todavía en la actualidad nos planteamos y nos llegan a inquietar como el futuro, la descendencia, la vida/muerte, la naturaleza. Ellos, como nosotros pero a su manera, intentaron aliviar dichas cuestiones buscando respuestas.

# ASKONDO Y EL ARTE hace 25.000 años

Los artistas que pintaron en la cueva de Askondo compartían unos conocimientos, unas inquietudes y unas prioridades artísticas muy generalizadas en la época. Existe una serie de motivos, como la representación de manos, que se extiende por una amplia geografía en toda Europa occidental. Muchas cavidades fueron decoradas de manera muy intensa, otras de manera puntual, pero en la meseta ibérica existen incluso ejemplos de vastas áreas a los márgenes de los ríos con grandes bloques grabados con las mismas figuraciones que encontramos en el interior de las cuevas. Además, se crearon también pequeñas figuras en piedra o en hueso también de marfil- formando esculturas de animales o de personas. Para la época de Askondo son muy significativas las famosas venus -figuras femeninas con los atributos sexuales sobrerrepresentados- que se encuentran en los yacimientos del centro de Europa pero que, por el momento, están ausentes en la península Ibérica. Muchas de las piezas creadas sobre las paredes o sobre pequeños soportes móviles son verdaderas obras de arte que evidencian una destreza indudable de los primeros artistas que ya comenzaban a destacar con la llegada del humano moderno homo sapiens a Europa hace 35.000 años. Compartir unos mismos códigos y unas mismas maneras de hacer pudo ejercer como elemento de cohesión para aquellos pequeños grupos humanos que precisaban de la colaboración y solidaridad para poder hacer frente a los momentos difíciles.



Recreación de un "artista" del periodo Gravetiense. *Museo de Berlin.*


MALLABIA
www.mallabia.org
AUKERAN, EUSKARAZI










Goi-mailako elikagaiak
Eusko Label
Alimentos de calidad superior
BENETAKOAZ GOZATU SABOREA LO AUTÉNTICO
EUSKO LABEL
Goi–mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior
EUSKO LABEL
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA
www.benetakoazgoza.com
www.saborealoautentico.com



# DURANGOKO EMAKUMEEN KARTZELA

TESTUA: **MARIA GOROSARRI**
ARGAZKIAK: **ARTXIBOAK, TXELU ANGOITIA**



# Nevers 1939-1940: Emakumeen arteko elkartasunak hesiak gainditu zituen

Espainiako faxismoaren errepresioa emakumeen jarduera politikoa ezeztatzean zetzan. Gizonezkoak gerra-presoak ziren bitartean, andrak lege-hausle soilak ziren. Horregatik, emakumeentzako espetxeak ez ziren gizonezkoentzako kartzelen modukoak: ez zuten espetxe itxurarik, komentuak izaten baitziren. Emakumeentzako espetxeak ez ziren gizonezkoentzako kontzentrazio-zelaiak ere, andra guztiek ezin baitzuten legezko esklabutza-lanik gauzatu. Izan ere, sei urtetik aurreragoko zigorra zuten presoek lan egitea galarazota zuten. Ondorioz, haien egoera “emakumeentzako biltegiak” esamoldearekin definitu zuen Tomasa Cuevasek, Durangoko eta beste hainbat herritako espetxeetan urte luzeak eman eta gero. Hortara, feminitateak elkartasunaren ezaugarri berezituak sortu zituen: presoen autonomia eta Durangoko emakume zibilen adorea.

**Garaituak izanaren kontzientzia inposatzeko, faxistek emakumeak animalien antzera tratatzen zituzten. Komentuetako geletan andrak pilatzen zituzten. Ez zegoen komunik, dutxarik, oherik... Presoek zoruan lo egiten zuten, albo batez, denentzako lekurik ez zegoelako. Gainera, gizonezkoek ez bezala, emakumeek euren seme-alaben ardura hartzen zuten, faxistek umeak ere preso hartzen baitzituzten, jatekorik ematen ez bazieten ere. Baldintza horien bitartez, emakumeei urteetan hilekoa kentzen zieten.**

## "Las Francesas" ikastetxeko espetxea

Nevers kongregazioko ordezkari Sor Filomena Roguesek Durangoko Udalari, 1937ko abuztuaren 11n, ikastetxea langile-batailoietako esklabuak biltzeko onespena eman zion. Faxisten bonbardaketek birrindutako Durango berreraiki behar izan zuten preso hartutako gizonek. Geroago, 1939ko martxoan, esklabuak beste kontzentrazio-zelaietara eraman zituzten. Orduan, 1939ko azaroan, agintariek Nevers ikastetxea emakumeentzako espetxe bihurtzea erabaki zuten, Karidadeko (Ospitaleko) mojen zaindaritzapean. Durangon geratzen ziren herritarrek ez zuten erabakia begi onez ikusi. Izan ere, herrira heldu ziren lehenengo presoek tren geltokian bertan herritarren aurkako jarrera nabaria gogoratzen zuten.




"Las Francesas" ikastetxea gerra aurrean.

Trenek emakume andana ekarri zuten Durangora: bagoi bakoitzean 30 bat preso pilatzen zituzten. Espainiako gainerako presondegietatik ekartzen zituzten, Andaluziatik barne. Egunero-egunero, trenak emakumez gainezka heltzen ziren. Abereentzako trenak zirenez, goian leiho txikitxoa zuten, ia arnasik hartzeko nahikoa izaten ez zena. Bertatik, soldaduek presoak zenbatzen zituzten: bakoitzaren izena oihukatzen zuten eta norberak abizenarekin erantzun behar izaten zien. Gehienetan, hiru bat eguneko bidaia izaten zen, egun bateko jana baino ematen ez bazieten ere. Horregatik, presoak indarge heltzen ziren Durangora: arnas-estuka eta makal. Nevers ikastetxeak bi mila emakume pilatu zituen.

“Izarren Argia” filmaren errodajean eginiko argazkiak





# Degradatutako feminitatea

Nevers ikastetxeko espetxeak preso politikoak eta sozialak biltzen zituen. Lehenengoak politikan jardun zuten emakume gazteak zein errepresaliatutako adineko andra eskolagabeak ziren. Preso sozialak, ordea, prostituta autonomoak (proxenetarekin jarduteari legezko irizten baitzion erregimen faxistak), aborturik eduki gura izan zuten andreak eta ondarearen aurkako lege-hausteak egotzitako emakumeak izaten ziren. Gizonezkoak ez bezala, emakumeentzat ez zegoen gerra-presoaren kontsideraziorik. Horregatik, emakume guztiak "lege-hausletzat" hartzen zituzten. Hala ere, bi taldeen arteko elkarbizitzak arazoak ekarri zituen.

Lehenengo eta behin, preso politikoek haien aurkako zigorraren izaera interpretatzeko gakoak zituzten. Horregatik, garbi egoteari ezinbesteko zeritzoten, animaliekin parekatzeko taktikari aurre egiteko.



Bigarrenik, preso politikoek orduko gizartearen arau sozialak zaintzen zituzten. Prostitutek, ostera, sexualitate irekiagoa garatu zuten eta haien artean bikoteak osatu ohi zituzten. Horrela, mojek gela batzuk atondu zituzten, Zornotzako espetxean, adibidez. Bertan, bikote lesbikoek harreman sexual pribatuak izaten zituzten, preso politikoen inguruko informazioa espetxeko zaindariei ematearen truke. Ondorioz, emakume politikoak prostituta autonomoekin mesfidati agertzen ziren.

Nevers ikastetxean pilatutako andreen arteko liskarrek preso politikoak eta prostitutak banatzea ekarri zuten. Horregatik, azken horiek goiko pisura eraman zituzten. Solairu horrek "Shangai" izena hartu zuen eta espetxeko zaindariek horren mehatxuarekin menderatu nahi zituzten emakume politikoak. Izan ere, bertara bidaltzea zigor moduan erabiltzen zuten, isolamendu ziegarik ez baitzegoen.

Era berean, umeak hiltzen hasi zirenean, preso politikoen protestak baretzeko, seme-alabak eurekin zituzten emakumeak beheko solairura eraman zituzten, bertan komun bat zegoelako. Hala ere, espetxeko agintariek ez zieten umeei esnerik ematen: presoek euren jatekoa seme-alabekin banatu behar izaten zuten (arroz-zopa, batzuetan eta tipula-zopa, besteetan). Durangoko andrek, ordea, pitxar esne mordoa eroan zituzten espetxera, umeei helduko zitzaizkielakoan.




ausa 48560.
(Firma del interesado e impresión
actilar del pulgar derecho )
de mil novecientos cincu
Pulgar derecho
MINISTERIO DE JUSTICIA
PRISION CENTRAL DE BURGOS
DIRECCION

Prisión «Central de Mujeres» en D



4 Isabel Ponce -- 9 La "Peque" -- 16 Isabel Burgos Hermanas -
Amparo Burgos (Amparito)-- 21 -- Félix, Funcionario -- 23 Doro, Directora
La Prisión – 24 Lucila Cabrejas -- 34 Rosa Cantos, Hija del Tte. Coronel de
Guardia Civil Ramón Cantos. Ella era Profesora de Piano.
36 María Rosado – 37 Ramona Pereira -- 38 Lucía Valencia - 42 Casilda M
Gil -- 55 Manuela Seoviano -- 57 Dolores Sierra -- 58 Esperanza Tello -
Libertad -- 64 Carmen Jiménez, Hija de Guardia Civil) -- 66 Prado
(Pradito) -- 68 Nieves Torres -- X Flor Cernuda. (57) ROSARIO DONAIRE-RI

El edificio había sido un «colegio de m



Archivo Histórico de Albacete

– 20
a de
la

Martín
– 63
Usero

## Presoen arteko elkartasun autonomoa

Preso zeuden emakume politikoek antolaketa autonomoa garatu zuten, “familia” izenekoa. Hiru kidek familia bakoitza osatzen zuten: emakume gazte batek, adineko andra batek eta tokian tokiko preso batek. Emakume gazteek formazio politikoa zuten. Beraz, faxisten zigorra ondoen ulertzen zutenak ziren. Horregatik, familiako beste bi kideen adoreari eustea zuten eginkizun nagusi. Eurek, gainera, idazten ere bazekiten. Horrela, emakume eskolabakoei irakurtzen erakusten zieten. Gainera, tokian tokiko presoek paketerik gehien jasotzen zuten. Orduan, familiako gainerako bi kideekin partekatzen zituzten. Azken batean, adineko presoak bizirauteko elkartasunezko antolaketa sortu zuten emakumeek.

Horrela, eguneko eginbeharrak errazten zieten sarea osatu zuten. Goizean, mojek presoak egurrezko zorua belauniko garbitzera behartzen zituzten. Emakumeen garbitasunerako, ordea, hiru ordu ur baino ez zegoen, bi mila preso zituen ikastetxean. Andreak, baina, ura erabiltzeko txandak prestatu zituzten, den-denek garbitu ahal izateko. Adineko emakumeek jasotako hezkuntza erlijiosoak pubisa garbitzea galarazoten zien. Errepublika laikoan formatutako andre gazteek, ordea, horren beharra erakutsi behar izan zieten, urik ematen ez zioten lekuan.

Gainera, preso bazeuden ere, andreek etxeko sustengu ekonomikoa izaten jarraitzen zuten. Horregatik, emakume gehienak ziegan zein jolastokian josten ibiltzen ziren. Hori bai, espetxeko zaindariek salmentarekin irabazitakoaren zatirik handiena kentzen zieten.

Arratsaldero, mojek presoak jolastokira ateratzen zituzten, ereserki faxistak kantatzeko. Are gehiago, soldadu armatuek jolastokia eta espetxeko atea zaintzen zituzten. Errejimen berriak indarraren bitartez bere zilegitasun eza ordeztu nahi zuen. Indar fisikoa ez ezik, herriko paisaiak ere garaipenaren berri eman behar zuen. Horretarako, kartel guztietan Franco gurtzen zen. Era berean, faxismoak sortu gura zuen gizarte berria abiatzeko, Espainia handia behar zuten. Are gehiago, erlijio katolikoak espainiatartasuna zehazten zuen. Horren arabera, Espainiako zenbait miliaziano eta miliziana ez ziren espainiarrak Errepublikaren zilegitasuna defendatu zutelako. Zenbait presok barre algarak egin zituzten bi soldaduk espetxera heltzen ziren kamioien izenak aldatzen ikusi zituztenean. Izan ere, gatza zekarren kamioiaren izena berridazteko lanetan bi soldadu zebiltzaten: “Franco, Franco, Franco” idatzi zuen batek, “Sal” (gatza) zioen hitzari “de España” gehitu zion besteak.

Hala ere, Europako demokraziek faxismoari 2. Mundu Gerra irabaziko ziotelakoan, espetxealdiaren perspektiba laburra zuten presoek. Izan ere, gudan jarraitzearen sentsazioa zuten. Hortaz, erresistentziari eustea borroka zeritzoten. Horretarako, gauero Francoren epaiketa antzezten zuten, gero eta hilketa gehiago pilatzen baitzituen.

Era berean, kontzientzia politikoari eusten zioten. Errepublikaren Egunean horren inguruko hitzaldiak prestatzen zituzten, gainerako presoei haren zilegitasuna eta ekarpen sozialak azaltzeko. Horregatik, maiatzean mojek Ama Birjina gurtzeko



Ezkurdiko frontoia. Atzekaldean, Nevers ikastetxea. Ca.1935.



Vicenta Garnika bere familiarekin.



Emakumeen kartzelako zaindariak. *Ricardo Doliwa.*

## Durangoko emakumeen elkartasun ausarta

Emakumeen arteko elkartasun sareak injustizia bera pairatu izanaren ondorioa ohi da. Are gehiago, emakume izatearren norbera ere arrisku bertsuan dagoela konturatzean sortzen da. Orduan, dena galdu duenak ez du beldurrik: dela bikotekidea fusilatu diotelako, dela etxea kendu diotelako, dela ulea ebagi diotelako, dela bortxatu egin dutelako... Horrela bakarrik uler daiteke Durangoko emakumeek gizarte garaitu hartan kontra egiteko pilatu zuten ausardia.

prozesioan formatzera behartzen zituztenean, jertse gorria zeraman emakumeak maiatzaren lehenengoaren ikur bihurtu zuten presoek. Herrira ere espetxean langileen eguna ospatu zutela zabaldu zen. Nevers ikastetxeko hesiak ezin zuen faxismoari aurre egiten zion erresistentzia zatitu, militarrekin matxismoa garaitu zelako: hesiaren alde batean, faxistek atxiloketa eta espetxe aldietan bortxatutako zenbait emakume preso zeuden; eta, hesiaren beste aldean, Durango menperatu zuten karlistek bortxatutako beste hainbeste andra zeuden. Izan ere, faxistek errepresaliatutakoen talderik jendetsuena bortxatutako emakumezkoek osatzen zuten. Hala ere, isilpeko krimena izan zen. Ordea, Errepublikaren zilegitasuna defendatu zutenei mojak bortxatu izana leporatu izan diote. Dena den, frankoaldiko "Causa General" osoak ezin izan zuen horren kasu bat ere dokumentatu. Mojen bortxaketa gezur historikoa izan da. Karlisten eta falanjisten bortxaketak, ostera, isilpeko krimen bihurtu dituzte.

Herrian legez kanpoko fusilamenduak ohikoak ziren aldi berean, zenbait emakumek justiziak eskatutako elkartasuna abiatu zuen. Lehenengo eta behin, espetxea zabaldu zuten lehen egunetik, jatekoa eraman zuten Nevers-era. Presoak bisitatzera zetozen senitartekoak etxean hartzen zituzten, ezagutzen ez bazituzten ere. Senitarteko horiek Durangora etortzen ez zirenean, ezagutzen ez zituzten presoak ere bisitatzera joaten ziren. Hortara, umeak hiltzen ari zirela zabaldu zenean, pitxar esne mordoa eroan zuten. Are gehiago, Durango Udalak hiru presori hiru urtetik gorako ume bana kendu zien 1940ko maiatzean. Ondoren, Udalak Ospitaleko euren mantenua ordaindu ez zuenez, Bilbora eroan zituzten. Horren aurrean, zenbait emakumek presoen umeak etxean hartu zituzten eta euren amak espetxera bisitatzera eramaten zituzten.



Juliana Cortijo, Guadalajarako El Olivarrekoa, Durangoko kartzelara ekarri zuten preso errepublikaren aldeko ideiak zituelako. Baldintzapeko askatasuna eman zioten, eta Durangoko familia baten etxean hartu zuten zerbitzari. Durangon errotu zen, eta haren ondorengoak bertan jaio dira.

Rosario Sanchezaren fitxa Durangoko Kartzelan



17794

Prisión ~~Central~~ Provincial de Mujeres de ~~Durango~~ Bilbao

Registrado al núm. ______ folio ______ libro ______

XPEDIENTE penal de Rosario Sánchez Mora

atural de Villarejo de Salvanés provincia de Madrid vecina de id.

ia de Andrés y de Francisca; estado casada; edad 2? años; nació el

; oficio o profesión S. L. ; instrucción al ingresar tiene ; lee sí ; escribe

jos habidos en el matrimonio ______ varones y 1 hembras; edad del mayor ______ y del menor

Es reincidente? no Antecedentes penales y en qué consisten no constan

| SEÑAS GENERALES | FECHAS | | | VICISITUDES PENALES Y PENITENCIARIAS | TIEMPO DE CONDENA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Día | Mes | Año | | Años | Meses | Días |
| Iris (ojos) / Cabello / Piel | 25 | Septbre | 939 | Fué sentenciada por Consejo de Guerra en Getafe | | | |
| Cejas | | | | por ~~un~~ delito de auxilio a la rebelión | | | |
| Ojos | | | | | | | |
| Nariz 17794 | | | | | | | |
| Cara | | | | a la pena de treinta años | | | |
| Boca | | | | | | | |



## Esteban Bilbaoren bisitaren zain

Espainiako gobernu faxistan Durangok leku berezia izan zuen. Alde batetik, Defentsa Ministro Varela jenerala Santa Anako elizan Casilda Ampuerorekin ezkondu zen 1941ean. Bestetik, Francok Esteban Bilbao durangarra Justizia Ministro izendatu zuen 1939ko abuztuan. Azken hori 1940ko Aste Santuan herrira etortzekoa zenez, Udalak espetxeko saneamendu lanak konpondu nahi zituen, presoak gero eta sarriagotan hiltzen zirelako. Guztira, bost emakume eta sei ume hil ziren.

**KARTZELAN HILDAKOEN ZERRENDA**

| PRESOAK | ADINA |
|---|---|
| Dolores Castillo Solsona | 43 urte |
| Guadalupe Gargallo Alegría | 34 urte |
| Eugenia Hinojosa | 21 urte |
| Nieves Martín | 56 urte |
| Eustaquia Pérez López | 30 urte |
| **UMEAK** | **ADINA** |
| Manuel Arana Egiñu | 6 urte |
| Antonio Cáceres | 6 hilabete |
| Victoria Gaver Espinosa | 2 urte |
| Alejandro Jimeno Mantelui | 8 hilabete |
| Ángeles M.L. Landa Carmona | 1 urte |
| Victor Martín Bayón | 4 urte |

**Iturria:** Durangoko Udal Artxiboa.



Durangoko Hilerriko erregistroan zahartzea jotzen da preso zeuden haur batzuen heriotzaren ziotzat.

Izan ere, Justizia Ministro legez, Esteban Bilbaok Emakumearen Patronatua martxan ipini zuen. Horren bitartez, preso egondako emakumeak bizitza osoan kontrolatzen zituen erakundea zen, aldiro haien etxeetara intimitea arakatzera joaten baitziren. Bilbaori eta Varelari, biei ala biei, Espainiako Auzitegi Nazionalak 2008an gizateriaren aurkako krimenak inputatu zizkien.

Espetxeko saneamendu lanok gauzatutakoan, Nevers kongregazioari "gerran eragindako kalte" moduan ordaindu zizkion Udalak (34.695 pezeta). Dirutzaren zenbatekoa bere testuinguruan ulertzeko, faxismoak errepresaliatutakoek lana egitea galarazota zutela gogoratu behar dugu. Horregatik, hainbat neskato umeak zaintzen lanean hasi behar izan zen. Durangon horregatik astean hiru pezeta ordaintzen zizkieten. Azkenik, 1940ko abenduan, Nevers-eko espetxea itxi zuten. a

**Maria Gorosarri**

(Durango 1936 Kultur Elkarteko lehendakaria)

# Inpunitatea borrokatzeko oroimena

Garaituak izateari uko egin zioten emakumeek eta gizarte garaituari aurre egin zioten andra durangarrek historia berridatzi zuten. Hala ere, euren izenak garaituen historia horretan galdu dira. Ikusezintasunak emakumeen erresistentzia irudikatzen du.

## Tomasa Cuevas Gutiérrez (1917-2007)



Guadalajarako nekazari-familia batean jaio zen. Bederatzi urterekin lanean hasi eta, hamalau urterekin, alderdi komunistako kide egin zen. Jarduera politikoarengatik, agintari faxistek birritan espetxeratu zuten, 1939an eta 1945ean. Gorputzean, atxiloaldietako torturen markak zeramatzan. Durangoko espetxean urte bi eman zituen. Ondoren, Bartzelonan bizitzera desterratu zuten. Hala ere, 1969an berriro Francoren aurkako erresistentzia klandestinoari ekin zion. Zenbait espetxetan ezagutu zituen kideei 1974an elkarrizketak egin eta hiru liburutako Testimonios de mujeres en las cárceles franquistas lana idatzi zuen. Bertan, espetxe baino, "emakumeentzako biltegiak" zirela azaldu zuen.

## Rosario Sánchez Mora (1919-2008)



Juventudes Socialistas Unificadas (JSU) gazteen sindikatuko kide egin zen, jostun ikastaroak doan eskaintzen zituelako. Madrilgo frontean parte hartu zuen. Horregatik, heriotz-zigorra ezarri zioten. Matilde Landak 30 urteko zigorrarengatik ordestea lortu zuen. Espetxean egon zen bitartean, bere amaginarrebak alaba jaioberria zaindu zion. Erregimen faxistak ezkontza zibilak bertan behera utzi zituenean, berarekin frontean borrokatutako senarrak Rosario eta alaba abandonatu zituen. Durangoko espetxean hamaika bat hilabete eman zituen. Ondoren, Bilbora eta Saturraranera eraman zuten. Azken horretatik irten zen egunean bertan, Miguel Hernández olerkaria Alacanteko espetxean hil zen.

## Vicenta Garnika Laserna (1900-1977)



Durangoko UGTko kide egin zen, Mendizabal lantegian txandakako beharra egiten zuen sasoian. Bonbardaketa eta gero, bost seme-alabarekin erbestera jo zuen. Frantziak 1938an errefuxiatuak kanporatu zituenean, Durangora bueltatu behar izan zuten. Atoan, auzokideek salatu zuten. Lehenengo, iraindu zuten, ulea ebagi zioten, harrika egin zioten eta, azkenik, atxilotuta eraman zuten. Aurretik, 1937ko otsailean, etxetik irtetzen ari zenean, tiro egin zioten eta bere iloba bat larri zauritu zuten. Bilboko Orue espetxean urte bi eman zituen eta Durangokoan, urtebete. Bertan, kideek irakurtzen erakutsi zioten. Espetxeko zaindariek 1940ko abuztuaren 21eko eguerdian libre utziko zutela jakinarazi zioten. Oinez, Tabirako etxerako bidean abiatu zenean, alabarekin topatu zen.

## Florencia Zabaleta Pagola (1903-1978)



Mendaron jaioa eta, ezkondutakoan, Durangoko Barrenkalera bizitzera etorri zen. Siloeches herrian jaiotako preso bat ikustera joaten zen Nevers-eko espetxera, emakume horren izenik jakin ez arren. Izan ere, aurretik ere ez zuten elkar ezagutzen. Bere auzokide bik (Manolitak eta Katalinak) preso hori bisitatzera Zarauztik zetozen bi emakume etxean hartzen zituzten. Orduan, Zarauzko emakumeek etortzerik ez zeukatenean, bera espetxera joaten zen. Siloeches ezizena hartu zuen emakumeak Florenciaren seme-alabei trapuzko panpinak egiten zizkien espetxean, bisitan joan izana eskertzeko. Maite Anduezak oraindik panpina horiek gogoratzen ditu.




Durangaldearen
ikuspegirik osoena

anboto.org


duran...go!
goazen!
www.durango-udala.net
DURANGO
Udala · Ayuntamiento
Barrenkale 17 tlf. 94 6030000



# ARRIE

TEXTO: MAITE IBAÑEZ
FOTOS: TXELU ANGOITIA



# RREKA

## LA ENERGÍA DE UN RÍO

El arroyo Arrierreka, que baja del monte Oiz, forma un paisaje que puede considerarse como un gran museo al aire libre que incorpora toda una serie de elementos que explican en buena parte la historia de Berriz y sus alrededores.

Aún hoy, se percibe la herencia acumulada de la actuación humana, en forma de presas, balsas, cauces, máquinas, caminos, puentes de piedra, restos de muros, etc; una variada serie de instalaciones mecánicas, bienes inmuebles e infraestructuras hidráulicas con gran valor etnográfico, histórico, simbólico y paisajístico.

## Ferrerías y fábricas de papel

Todavía podemos observar los restos de dos ferrerías, la de **Erroteta** **(1)** y **Olazarra** **(2)**. De la primera, algunos autores como Ibon Zaldua señalan que fue transformada en el año 1779 en molino papelero. A Fausto de Arriaga, su propietario, se le atribuye el mérito de construir esta pionera fábrica de papel de estraza bajo el impulso de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País. El proceso de elaboración debió ser el tradicional manual, con gran contenido artesano.

Si miramos hacia atrás, todo comenzó en un viejo molino harinero que a principios del siglo XVIII pasó a manos de Martín de Asua. Aprovechando la buena coyuntura que se vivía en el comercio del hierro, lo reconvirtió en ferrería. Su hijo, Francisco, se casó con la heredera de los patronos de Dima, los Urizar, ampliando así considerablemente su patrimonio. Heredades que pasarán a María Baustista de Asua y Urizar y a su marido Fausto Antonio de Arriaga.

De la de **Olazarra** **(2)** sabemos que aparece citada en la fogueración de 1745 como propiedad de Martin José Abarrategui, vecino de Durango, dueño a su vez del molino adyacente que se cita expresamente como "molino nuebo". Molino y ferrería se vuelven a nombrar en el recuento del año 1796. Labayru se refiere a ella como una ferrería sartenera, sin uso. No obstante, la de **Olazarra** **(2)**, junto con las de **Arria** **(3)**, **Olabarri** **(4)** y **Erroteta** **(1)**, fue una de las últimas que se mantuvo en activo en Berriz.

El conjunto se halla en ruinas, pero tiene suficiente entidad como para ayudarnos a comprender los distintos usos del recinto ferrón. Se conservan en buena medida los muros perimetrales con un importante alzado y restos de un tabique interior que marca claramente dos espacios.

Un gran arco rebajado de sillería nos permite entrar a la estancia en la que se ubicaba el horno. Aún queda la huella de su tiro y las paredes tiznadas. El túnel hidráulico es la instalación mejor conservada: abovedado, de sillería bien labrada y con un fondo de aproximadamente cinco metros de altura. Toda la infraestructura hidráulica se reutilizó para levantar una central hidroeléctrica en 1897.

El expediente para cambiar el aprovechamiento de aguas de la ferrería y utilizarlo en la producción de energía eléctrica fue promovido por Clemente Sarrionandia. El proyecto consistía en reencauzar las aguas del Arrierreka que movían su ferrería y molino, y reunirlas en un solo salto de 14 mts. En 1929 la central se trasladó a escasos metros aguas abajo. Pertenecía al Ayuntamiento de Durango y daba alumbrado público a la villa.




Antiguo plano de Erroteta. *Archivo de la Real Chancillería de Valladolid.*

Próxima a **Olazarra (2)** se encontraba la ferrería de **Olabarri** (Eitua) **(4),** que funcionaba con las aguas del río Garai. La citamos porque entre **Erroteta (1)**, **Olazarra (2)** y **Olabarri (4)** existía y existe un camino carretil que conectaba a las tres y por el que transitaban multitud de carros cargados de mineral. Todavía hoy se puede recorrer la pista de tierra y cruzar sus puentes de piedra del siglo XVIII.

Se la menciona en la fogueración de 1704 como casa Otalora-Olabarria con su ferrería, propiedad de Juan Ibargüen. En 1745 pertenecía a Joaquín Lejarza. De nuevo aparece en la de 1796, figurando a nombre de Juana Eguia. Labayru se refiere a ella como una ferrería que fue sartenera y que "hoy trabaja en tirar varillas con cilindros nuevos y en chapas". En 1940 la infraestructura hidráulica se aprovechó para una central de producción eléctrica perteneciente también al Ayuntamiento de Durango. Se derribó entonces el edificio ferrón y en su lugar se erigió uno de nueva planta. De su pasada dedicación a la producción de hierro queda la presa, el canal, la antepara y algunos vestigios de muros reforzados con contrafuertes, que nos informan de un taller de grandes proporciones.



Restos de la central de Olabarri.


Juanita y Jose Mari, molineros de Anporta.


Molino Anporta.


Maquinaria del molino de Anporta.


Antigua ferrería Olazarra.


Caserio Olabarri.



Canales de Urzulo.

## Molinos

Transportó 30.000 toneladas anuales de mineral de Arrazola a Altos Hornos. El cierre de las minas, hacia los años 30, dio la puntilla al ramal de Arrazola, que quedó con un servicio de correo diario y el esporádico transporte de madera de las talas de los bosques del entorno, hasta su abandono total en los años 50.

A pesar de las numerosas industrias y centros escolares localizadas en su itinerario, el ferrocarril de Elorrio, salvo festividades concretas, nunca tuvo gran afluencia de pasajeros. Algunos informes de la época dudaban de la idoneidad de sus horarios, en beneficio del transporte por carretera.

# LOS FERROCARRILES VASCONGADOS

La relación entre las compañías ferroviarias de vía estrecha del norte del País Vasco, fueron muy directas, ya que había bastantes accionistas que coincidían en los distintos consejos de administración. Esto llevó, en 1906, a la fusión de la Compañía Central de Vizcaya de Bilbao a Durango, la Compañía del ferrocarril de Durango a Zumarraga y la Compañía del ferrocarril de Elgoibar a San Sebastian, con el nombre de Compañía de los Ferrocarriles Vascongados. Sus principales instalaciones siguieron en Durango, con sus talleres, cocheras, oficinas y amplia playa de vías.

El viaje de Bilbao a San Sebastian evitó los engorrosos trasbordos y mejoró, después de que en 1923 se hiciera la variante de Lebario , que dejaba libre el trazado entre Mikeldi y Lebario, donde años después pasaría la carretera N 634.

En 1925, la compañía dio otro importante paso para la modernización de la línea, electrificando el recorrido. Se adquirieron locomotoras eléctricas Brown Boveri, tipo cocodrilo, Asea y automotores Ganz, que funcionaban a 1500 voltios e iban pintadas con un elegante rojo y crema. A la inauguración del ferrocarril electrificado, en 1929, asistió el dictador Primo de Rivera y varios de sus ministros que hizo el recorrido de Bilbao a San Sebastian en el tren Pullman en dos horas y diecisiete minutos.



Estación de Durango tras el bombardeo de 1937. *Archivo Rino Zitelli.*




Cocheras de Euskotren. 2009. *Txelu Angoitia.*

La línea de Durango a Elorrio no sería electrificada hasta 1946 y el ramal de Arrazola seguiría utilizando la tracción vapor cada vez que hacía alguna expedición de madera.

El estallido de la guerra civil de 1936 supuso un duro revés para la compañía. La mayor parte del material móvil quedó en manos de los republicanos pero, rápidamente, la línea quedó cortada y sólo se podía circular hasta Eibar y Elorrio.

Tanto el ferrocarril como el tranvía fueron incautados por las autoridades para el suministro de tropas y pertrechos para el frente de los Intxorta, Barazar, Otxandio, Ubidea... Sus infraestructuras y material móvil sufrieron graves daños en los bombardeos de Durango y en las voladuras que la retirada del ejército leal a la Républica producía para frenar el avance del enemigo (voladura de los puentes de Montoi, entre Iurreta y Durango, el de Euba, Amorebieta y la Peña). Consecuencia inmediata de estos destrozos fue la supresión,en 1937, del tranvía entre Durango y Amorebieta.

Tras la guerra, el ferrocarril volvió a manos de la Compañía propietaria. El ambiente bélico de la posguerra influyó en el cambio de imagen de la compañía, que pintó sus locomotoras y vagones de verde oliva. Fue una época de auge ferroviario ante la crisis de carburantes y equipos que sufría el transporte por carretera. El número de viajeros y mercancías aumentaron de forma considerable. Algunas fábricas tenían servicio de transporte puerta a puerta, con ramales que se introducían en las empresas: Mendizabal, Olma, Ortiz de Zarate en Durango, la cantera de Santa Apolonia en Iurreta...

Pero, poco a poco, avanzados los años 60 del siglo XX, la falta de inversiones en el ferrocarril se fue notando. Las instalaciones, vías y material móvil fueron envejeciendo lo que hacía que las velocidades se ralentizaran. También se percibía claramente la competencia del transporte por carretera, cada vez más numeroso y asequible. A partir de 1967 el tráfico de pasajeros fue bajando hasta un 15% de media anual,



Estación de Durango. 2010. *Txelu Angoitia.*

mientras que las mercancías caían un 73%. Se construyó la autopista Bilbao-Behobia. La empresa entró en pérdidas, por lo que, en 1972, decidió abandonar su explotación que pasó a la empresa estatal FEVE (Ferrocarriles Españoles de Vía Estrecha).

En 1975 FEVE clausura la línea de Durango a Elorrio y también el ferrocarril de Malzaga a Zumarraga, vendíó los saltos de Garai a Electra Larrañaga y estuvo a punto de dejar de efectuar el servicio Bilbao - San Sebastian, para convertirlo en tren de trayectos más cortos.

En 1979 se transfirió su explotación al Consejo General Vasco. Este organismo creó, en 1982, Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S. A., más conocido como EuskoTren, que apostó por la modernización general del servicio.

Se renovaron las vías, se adquirieron nuevos trenes y los horarios se adecuaron a las necesidades del público.

El aumento de frecuencia en el paso de trenes ha afectado, especialmente, a Durango, que cuenta con ocho pasos a nivel, desde Santa Apolonia, en Iurreta, hasta el límite con Abadiño. La vía se ha convertido en un muro que, intermitentemente, bloquea y paraliza el movimiento de tráfico y transeúntes.

Para resolver este problema Eusko Tren inició un ambicioso proyecto de soterramiento del tren en Durango, con la retirada de talleres y vías, la construcción de un emblemático edificio para albergar la nueva estación y la sede central de Eusko Tren, además de la urbanización de los terrenos liberados.

A día de hoy, casi concluído el soterramiento, la crisis económica ha ralentizado las obras e, incluso, ha puesto en peligro la total ejecución del proyecto.

**Jose Mari Uriarte**
Historiador

# AMANKOMUNAZGOARE



Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



## BELODROMOA (BERRIZ)

Ordutegia: Irekia.
Ikasleentzako urtean zeharreko ikastaroak.
Monitorea kontzertatutako taldeentzat.
Bizikletak eta aldagelak eskuragarri (taldeentz



## ATLETISMO PISTA (DURANGO

Urte osoan irekita Abuztua ezik.
(9.00/13.00 eta 15.30/21.00)
Ikasleentzako urtean zeharreko ikastaroak.
Monitorea 9.30/12.30 eta 15.30/16.30
kirolariari beharrizanetarako.
Gimnasioa, aldagelak, froga ezberdinetarako
materiala eskuragarri.

# N APUSTUA; KIROLA



# BOLBORA USAINA

TESTUA: **KARLOS ERIZ**
ARGAZKIAK: **TXELU ANGOITIA**





Ez dago erdibiderik, Errebonbilloen jaia maitagarria edo aspergarria da. Kutsu erlijiosoa eta militarra ikusten diote bere aurkakoek; herriaren historiaren, kulturaren eta nortasunaren aztarna bizia dela esango dute jaiaren aldekoek. Gu, ume mokoak ginela, errebonbilloen arratsaldeko ibilaldia osatzen genuen gure baitarako gizon ziren gazte taldearen atzetik. Eskopeten dunbotsa, desarra bakoitzaren ostean poltsikoratzen genituen kartutxo hustu berrien berotasunak eta airean zabaltzen zen bolbora usainak erakartzen ninduten gehien. Jaiaz maitemintzeko zio berriak ezagutuko genituen geroago, baina harrezkero hauts kartsuen usain sarkorra beti egin zait kilikagarri.



Meliton.



Javi Tanger.


Osteguna. 7:30 p.m. Azken entsaioak.










Domeka. 5:00 a.m.

Behin izanda, betiko da bat errebonbillo. Hala dio Niko Morenok, Iñaki Irigoien Etxebarriaren "Errebonbilloak" liburuaren hitzaurrean. Eta halaxe da bai, behin izanda, urte batez jaian parte hartuz, begi berriz ikusiko dituzu errebonbilloak aurrerantzean.

Gezur handia ei da Amandarroko semeek tiroka agurtu zutela Elorrio, Lepantoko golkoan irabazitako gudatik itzuli zirenean. Hiru, lau edo bost anaia zirela, guri bost, errebonbilloak hamabost. Urriko lehen domekarekin batera Arrosarioko Ama Birjinarena ospatzen dela, baina hastapenetan San Juan egunez egiten zela, guri bost! Sinestunak, agnostikoak, ateoak... errebonbilloak hamabost.

Hain gurea sentitzen dugun jaia Durangotik klonatu omen genuen duela lauzpabost mende, herri askotan defentsarako talde antolatuak agertzen ziren garaian. Adar biko txapela buruan, parpaila zuria lepotik behera eta zizpa eskuetan ikusten ditugu errebonbilloak; pauso geldoan irmo, tiro eginez serioski. Argazki ofiziala da, tipikoa. Badira baina, positibatu ezinezko hamaika instant, hamaika irudi. Eta horiek dira zirraragarrienak.

## Presta

Errebonbillo zaren lehen aldian ez da arraroa Sanmigeletatik bueltan txinpartuta agertzea. Hitzordua goizeko bostetan da kontzejupean



eta urtero-urtero agertuko da Iurretan zurrutean ibilitako bat edo bat. Hastapenetan, Udalak gailetak eta solysombra ematen zien soldaduei barruak berotzeko, baina egun nahikoa da, antza, bakoitzak dakarren aitzurraz. Hor hasten dira komeriak. Tiro egiterakoan, pauso geldoari artez eusterakoan edo pauso arruntean ilaran zuzen abiatzerakoan.

'Goizalde zaratatsua' lez hartu du Gerediaga Elkarteak errebonbilloen jaia, eta bai zaratatsua dena, batez ere tiro egiterakoan tropak kapitainaren aginduari baldar erantzuten dionean. Jotzeko hotsa eman eta batean jotakoa behar lukeen tiroak metrailaketa bat dirudienean. Haserre kapitaina, buru makur eskopeteroak.

Instrukzio ariketak, berez, ez dira zailak, ezta intsumituak ginenontzat ere. Egia esan, zizpa maneiatzeko, desfilatzeko eta tiratzeko, ez da aparteko trebetasunik behar. Arazoak dantzek sortzen dituzte, baina horiek arratsaldeko kontuak dira.

Istripu gutxi izan dira baina ustekabekoak sarri. Behin, eskopeta kargatzera zihoala trabatuta gelditu zitzaion kartutxoa hasiberri bati. Ez aurrera ez atzera, tutuan trabatua zegoen posta. Laster argitu zen dena. Errebonbilloak kartutxoa barik, oraindik egun salmentan dauden eta eskopetaren tutuaren kalibre bereko neurria duten cliper borobil horietako bat sartua zeukan eskopetan. Patrikan gordetzen dira jaurtigaiak eta poltsiko berean zeuzkan, antza, tabako paketea eta pizgailua.







Domeka. 5:00 a.m.

Goizaldeko lanak bukatuta errebonbillo zuhur zintzoa lotara joango da. Arratsaldean itxura txukunarekin agertu gura du. Aspaldi, txori-galduenak Iurretara joaten ziren berriro, goizeko zezenketa ikustera. Zazpi-zortzi lagun ederto aitzurtuta Simca 1200 batean Iurretarako bidean! Egun pentsaezina litzateke! Egun ulergarriagoa da todoterreno erosi berrian Betsaidera joatea eta bertako aldapan lau-laua zen autoa, hankaz gora eta guztiz konkatuta bertan uztea!

## Desta

Arratsaldeko bostak. Kontzejupean gaude eta plaza jendez lepo. Irten baino lehenagoko ardurak eta urduritasunak. Eta lotsak. Piura halakorik! Pinguino bat ematen duzu. Eskerrak beste hamalau pinguino dituzula alboan, jada ilaran, ur hotzetan murgiltzeko prest!

Beharbada, une aspergarri bakarra plazako egonaldi luzea da. "Atseden" egoeran, bat ere atsedenik gabe. Bost hamar minutu izan daitezke, eta luze egiten dira. Irten dira azkenik elizatik, hastera doa gure txanda. Ibilbidea azkar egiten da; ohiko kaleetan zehar abiatzen gara betiko martxa militarraren erritmora, ohiko lekuetan armak aurkeztu, ohiko lekuetan tiro egin, eta konturatu orduko plazan gaude, berriro, unerik gogorrenari heltzeko kikilaldiarekin. Azken desarren ondoren eskopetak utzi eta dantza saioa baitator.



Domeka. 3:30 p.m.

Agerraldia fandangoa eta arin-arina dantzatuz bukatzen da. Aurretik, bi soldaduk Errebonbillo beste neska atera dituzte plazara. Inoiz hori be luzeegia izan da, neskek be lotsati xamar, ezetz eta ezetz, plazara ezetz.

Azken jotak lur jota utzi zaitu, baina bukatu da. Eskopeta udaltzainen lokalean utzi eta txapela parpaila lebita erantsi. Alkondara zuria eta fraka grisekin duela 30 urteko snackbarreko zerbitzariaren traza duzu orain.. Eta zein gustura! Errugbian bezala, partida bukatuta, hirugarren denbora jolasteko ordua baita. Poteoa eta afari ederra!

## Zai - Jo !!

Txomin Morenok asko daki errebonbilloez. Txistua ezpainetan, 1973tik ari da tropari doinua jartzen. Aurtengoa bere 39. agerraldia izango da. Berak esana da "Errebonbillo eguneko arratsaldeko saioetan, beti ateri", musikari ona den seinale moduan edo…

Pello Eriz Errebonbilloen Kapitaina izan da 11 urtean. Bera izan zen, 1979an tropari aginduak euskaraz ematen hasi zena, "agian itzulpenean zorroztasun handirik gabe, baina frankismo ondoko urte haietan beharrezkoa ikusi genuen". Txominek eta Pellok asko maite dute jaia eta bioi eskatu diet ganbarak freskatzeko eta kontu kontari hasteko.



Domeka. 5:00 p.m.

Franko hiltzear zegoela, sekulako iskanbila sortu zen herrian. Egoera politikoa puri-purian zegoen eta baziren Errebonbilloak bertan behera utzi behar zirela proposatu zutenak, erregimenaren aurkako ekintza sinbolikoa aldarrikatuz. Orduko gorrienek sutsuki defendatu zuten boikotaren beharra, baina errebonbilloek presio eta mehatxu gogorrak jasan zituzten; mesedez eta arren, Errebonbilloen jaia ospatu behar zela. Eta amore eman zuten.

Handik urtebetera, goizaldeko saioa bukatuta, Felipe Lejarazuk, hordagoa bota zien eskopeteroei. Etxe parean tiro eginez gero, baba jana emango ziela bere jatetxean. Eta pilotari handiaren etxearen parean egin zuten tiro. Kasualitateak hala aginduta (?), edota frankotan egoten zirelako, Miñotarako bidean Guardia Zibilak kontrola zuen jarria. Bertatik aditu zuten dunbotsa. Lanrrober mordoa agertu zen bat-batean eta sekulako erakustaldia eginez, dida batean inguratu zituzten errebonbilloak. Susto galanta hartu zutena txapelokerrek, bi bandoetakoek, elkar ikustean!

1979an jauzi nabarmena egin zuen jaiak. Ordura arte, eta batez ere aurreko hamarkada hartan, Errebonbilloena parranda hutsa ei zen. Goizaldeko saiotik hasita, iluntzeraino. Sabin Ansola musikari eta txistulari ezaguna izan zen hasiberriei banan-banakoa erakusten saiatu zen aurrena. Hala ere, 1979an, ez zegoen tropa osatzerik (barregarri geratzeko boluntario gutxi) eta Angel Eguren 'Zoko-ri' otu zitzaion dantza taldeko mutilek osatuko zutela errebonbilloen tropa. Nestor,



Domeka. 5:00 p.m.

Niko, Periko, Pablo…ume moko batzuk ziren, baina sekulako ikuskizuna eskaini zuten.
Istripu gutxi egon da, baina Doroteren etxe dotoreko leihoak apurtzeko ohitura nondik zetorren argitu ahal izan dugu. Urte batean, kartutxoek bolbora estaltzeko erabili ohi den kortxo tapoia eduki beharrean, plastiko gogorrez egindako estalkia zuten. Bere etxe parean tiro egiterakoan, leihoetako kristalak txiki-txiki eginda gelditu ziren. Sekulako triskantza izan zen. Dorotek salaketa eta guzti jarri zuen. Harrezkero, eta urteetan, egongo zen Doroteri haserraldi hura gogoraziko zion eskopeterorik.

## Herriari lotuta, uria defenditzeko prest

80.eko hamarkadako azkenak urte gatazkatsuak izan ziren Elorrion. Arazo mordoa zegoen sasoiko Udal Gobernuaren eta herriko kultur eta kirol taldeen artean eta ezinegon hura, ezinbestean, errebonbilloetan ere islatu egin zen. Bazekiten haserrea nola adierazi. Goizeko itzulian tiro egiteko lekuak ez dira aldatzen, sasoiko alkatearen etxe aurrean bota behar dena izan ezik. Ohitura eta betekizuna ere bada alkateak mokadutxoa prest izan behar duela troparentzat.

Orduko alkatearen etxe parean desarratu ostean, mokadua hartzera bere etxera gonbidatu zituenean izan zuen alkateak errebonbilloen haserrea-



Domeka. 6:00 p.m.

ren berri. Hurrengo urtean garajean prestatu zuen gosaria, baina giroa ez zen batere baretu. Etxeko atarian, pare parean egin zuten tiro errenbonbilloek. Alkateak lonjaren atea ireki eta ederto hornituta zegoen mahaia zuten eskopeteroek begi bistan. Kapitainaren agindua entzun egin zen, ozen. "Aurrera pauso arrunta" eta denok, atabalaren erritmoari jarraiki, ospa egin zuten –aurretik adostu bezala-, luntxa, mistelak eta gozokiak bertan utzita. Eta alkatea aho bete hortz.

Hori da akaso urtero berritzen den tropa honen ezaugarri nabarmenena. Herritarrak dira eta herriko arazoak ezagutzen dituzte, eurenak ere badirelako. Errebonbilloak herriaren alde agertuko dira beti.

Agerraldia beste herri batzuetan erakustera joan izan direnean denetarik jazo da. Sestaoko Simon Drogasetara, Portugaletera, Basaurira eta Getxora joanak dira, besteak beste, elorriarrak. Behin Basaurin, tiroka hasi eta kotxe guztien alarmak uluka hasi ziren, zoroen pare. Orduko moda berria ziren kotxezain automatikoak. Alarde alarmagarria izan zen, zinez.

Algortako Portu Zaharreko plazatxoan barrezka hartu gintuzten -gure piuragatik jakina-, baina aurpegia aldatu zitzaien zeharo, elegante haiei guztiei, tiro egin genuenean. Mahaitxoen azpian ezkutatu ziren, kartutxoen estalkien erruz zuhaitzetako adar puskak euren gainean erruz jausten ziren bitartean. Irudia 'tejerazoa' datorkit gogora.









Estanpa surrealista gehiago marraztu dituzte bikorniodunek. 90.eko hamarkadaren hasiera zen. Egun osoko lanak bukatuta, eta Tanger jatetxean bapo afaldu ostean, Ertzantzaren automobila ikusi zuten errebonbilloek, Berrio-Otxoa kalean aparkatuta. Bertan zegoen orduan komisaldegia. "Guk babestuko dugu herria, ez ditugu hauek behar" oihukatu zuen batek, eta Belfast edo Donostiako alde zaharreko kale estuetako barrikadak legez, hantxe utzi zuten trebeska Ertzaintzaren automobila. Urdin koloreko marroia handik eta minutu eskasera ikusi zuten. Gorriak eta bi.

Errebonbilloak Berrio-Otxoa kaletik behera arineketan, eta popan ertzainak, hauek ere korrika. Borrak hegan ibili ei ziren! Urkizu jauregiaren paretaren kontra 'neutralizatu' zituzten errebonbilloak kale borrokako ekintza bat ekiditen zeudela uste zuten poliziek. Eskuak paretaren kontra, hankak zabalik, agiriak bistan… Algara eta protesta eskutik helduta. Hurrengo asteetako atsoen berriketen topten izan zen.

Historiarako gelditu da 1928ko Errebonbiloen jaia. Irigoienek ikertutakoaren arabera, urte hartan herriko gazteek ez zuten parte hartu alardean eta kanpotik etorritako gazteek osatu zuten tropa. Txistulari taldea Galdakaotik ekarri omen zuten. Gazte falta izan ote zen? Edo protesta eta boikota egiteko modu bat? Zergatik? Historialariak Primo de Riveraren diktadurapean geundela gogoratzen digu.



## Ohorezko errebonbilloak

Ilea urdintzen joan zaigun heinean, badira aldatu diren azturak, halabeharrez galdu ditugun ohiturak… eta pertsonaia maitagarriak. Duda bako ohorezko errebonbilloak.

Meliton Irazabal Madariaga. Pregoilari, kanpai jole, sakristau eta errebonbillo. Zahar ezagutu genuenontzat, gazte agertzen da Irigoyenen liburuan, ziurrenik Landaburu maisuak landutako argazki bitxian. Errebonbilloen arratsaldeko saioa elizako aferak bukatzen direnean hasten da. Meliton zen elizako ateak zabaldu eta atoan kapitainari prest egoteko abisua ematen ziona. Gauean, agerraldia bukatuta eta afaltzera joateko tenorean, Berrio-Otxoa kalean gora herrenka abiatzen ginen txantxaka errebonbilloak, hanka bat espaloian eta bestea errepidean, "Don Melitón tenía tres gatos, que les hacía bailar en un plato, y por la noche les daba turrón, ¡que vivan los gatos de Don Melitón!" abestuz, himnoa balitz bezala. Bere atartean gelditzen ginen leloa errepikatzen, bera leihoan agertzen zen arte. Hura gozakaiztua! Haiexek eztarri zakar urratuak! Salamancan tuneatutako tuna geurea! Alargun gelditu zenetik Meliton ez zen gehiago leihora agertu. Hil zen arte. Egun ez dago espaloirik bere kalean. Herrenarena egiten jarraituko ote dute?

Javi Urien 'Tronpe'. Goizaldeko errebistaren ostean, eta alkateak eskaini luntxaz aparte, gosaria ederrra egiten dute errebonbilloek. Aspaldi, egun etxebizitzak diren plazako Niko jatetxean









Domeka. 8:00 p.m.

ematen zieten mokadua eta geroago Lejarazun, baina duela hamarkada batzuk Javi Urienek hartu zuen ardura Tanger tabernan.

Felipe Lejarazu jubilatzear zegoen eta goizaldeko jana emateari utziko ziola esan omen zien errebonbilloei. Hauek sinetsi ez edo sinetsi gura ez, baina goizeko saioa bukatuta errebonbilloek Lejarazu itxita aurkitu zuten. ‘Kele’ orduko alkatearen etxean tiro egitera joan zirenean, han agertu zen ‘Tronpetillas’, erdi lo - erdi gaupasa eginda. Jazotakoa kontatu ziotenean, bat-batean bota zuen: “Todos al bar”. Eta Tangerrera abiatu ziren errebonbilloak gosaltzera. Tangerren gosaltzen dute oraindik ere baina Ane eta Marisa arduratzen dira orain otorduaz. Zoritxarreko istripu batek Javiren gatz eta piperrik gabe - errejimentuaren ‘cantineritarik’ gabe- utzi gintuen duela 9 urte.

Bada, azkenik, errebonbilloez harro egoteko beste arrazoi potolo bat. Irunen eta Hondarribian bizi den esperpentoa ez dela gurean gertatzen. Ezta urritik ere. Elorrion naturaltasun osoz hasi ziren neskak soldadu lanetan. Eta berdin edo gehiago txalotzen dituzte herritarrek euren dantzak eta euren eskopeten danbatekoak.

Herria gara eta ez uri. Txikia da Elorrio, eta arantzaz josia, baina gure txikitasunean, gure herriak badu zer erakutsi eta zer defendatu. Zorionak errebonbilloak eta zorionak Elorrio! Gerediagakoen bertsoak dioen lez, bizirik mantendu dadila gure altxorra! a

**Karlos Eriz**

Kazetaria

# KIROLENE

KIROL IRAKASKUNTZEN ESKOLA

**Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoa**

Centro Público de Enseñanzas Deportivas



## Titulazio Ofizialak *Titulaciones Oficiales*

Saskibaloia *Baloncesto*
Eskubaloia *Balonmano*
Futbola eta areto futbola *Futbol y fútbol sala*
Atletismoa *Atletismo*
Mendikirolak eta eskalada *Deportes de montaña y escalada*
Neguko kirolak *Deportes de invierno*
...eta abar *etc...*

San Inazio Auzunea, 5. • 48200 DURANGO • BIZKAIA
Tel. 946 811 119 • Fax. 946 030 668
info@kirolene.net • www.kirolene.net

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

# kulturaren alde

berrizko
UDALA



2010ko 1. eskultura
eta mural lehiaketak.





TEXTO: **JON IRAZABAL**

# PATRIMONIO ARQUITECTÓNICO: un futuro incierto

La conciencia de la existencia de un patrimonio histórico-arquitectónico y la necesidad de conservarlo no surge hasta bien entrado el siglo XIX. Prueba de ello la tenemos en los escritos de protesta que, en 1881, un numeroso grupo de vecinos durangueses dirige al Ayuntamiento para evitar los derribos del pórtico de la iglesia de Santa María y del arco de Santa Ana, propuestos por los arquitectos que se encargaron de la nueva alineación de las calles de la villa. Otro ejemplo lo vemos en la carta del vascófilo inglés Edward Spencer Dogson que, en 1904, pide medidas de protección contra los elementos atmosféricos para la cruz de Kurutziaga de Durango. Esta cruz había sido ignorada por los historiadores y cronistas hasta finales del siglo XIX.



Demolición del caserío Etxebarri-bein. San Agustin, Elorrio. *Txelu Angoitia*

En 1909 se constituye la "Junta de Cultura de Vizcaya" con el objetivo de preservar los monumentos de la provincia. Tiene todo por hacer. En el Duranguesado se interesa por las tumbas de Argiñeta de Elorrio, por los objetos y archivo de la casa-auditorio de Astola y por el estado de la iglesia de Santa María de Durango.

A partir de 1911 se dictan varias leyes en favor del patrimonio, pero no es hasta la llegada de la República española cuando, en 1933, se aprueba la "Ley del Patrimonio Artístico Nacional". Con algunas modificaciones en los años 50, esta ley será la base legal para proteger el legado cultural hasta la nueva ley del gobierno de España de 1985. En 1990 el Parlamento de Vitoria aprueba la "Ley del Patrimonio Cultural Vasco", específica para la Comunidad Autónoma Vasca.

## Un camino dificultoso

La historia del patrimonio histórico-arquitectónico de nuestra comarca, se ha escrito con actuaciones acertadas y con dejaciones e intervenciones discutibles. No es tarea fácil conservar el patrimonio. Los planes urbanísticos de las administraciones locales y supra-municipales, los intereses particulares, los costes de conservación o la función que se puede dar a los edificios restaurados… plantean problemas que, en ocasiones, convierten elementos patrimoniales en incómodos estorbos.

Tras las notables pérdidas que acarreó la guerra de 1936 para el patrimonio, el desarrollismo de los años 60 supuso otro momento oscuro para la conservación de monumentos, que a menudo eran un obstáculo para los promotores urbanísticos.

En este ámbito de falta de libertades, los esfuerzos conservacionistas de la administración encontraban a veces actitudes contradictorias en las corporaciones locales. En 1964 se declaró Conjunto Monumental al casco antiguo de la Villa de Elorrio. En 1966 el secretario de la Comisión de Monumentos de Vizcaya se dirigió al alcalde de Durango para indicarle que se estaba tramitando el expediente para declarar Conjunto Monumental la Villa de Durango y que no podía autorizar la construcción de edificaciones que desentonaran con el entorno, como era la actual casa nº 7 de Pinondo. El alcalde respondió que dicha nueva casa había sido autorizada antes del expediente y que sobre el mismo no se había consultado con el Ayuntamiento. Durango no sería declarado conjunto monumental hasta 1997, tras un sin fin de nefastas intervenciones urbanísticas.

Desde su fundación en 1965 la protección del patrimonio histórico-artístico de la Merindad de Durango ha sido uno de los objetivos de Gerediaga Elkartea. En una primera etapa las intervenciones en dicho campo fueron puntuales. En 1973 la sección Askondo de Gerediaga elaboró una lista que recogía lo que en aquel momento se consideraban elementos y conjuntos de interés que fue remitida a las autoridades. En 1977 un grupo de vecinos de Iurreta, (algunos de ellos socios de Gerediaga), se opusieron al derribo de Muruetatorre, en Landako. El derribo entraba dentro del proyecto de avenida, que partiendo

de Larrasoleta finalizaría en Harripausueta, para conectar con la N-634. También se preveía el derribo de la ermita de la Vera Cruz y el palacio Garai en Kurutziaga.

Se evitó el derribo de Muruetatorre, y esto animó a Gerediaga Elkartea a implicarse más a fondo en la defensa del patrimonio del Duranguesado. Se solicitó a los Ayuntamientos de la comarca actitudes positivas hacia este legado, ya que en esos años de transición del franquismo hasta las primeras elecciones locales de 1979, fue un periodo de vacío legal en que, algunos elementos insustituibles de nuestro patrimonio fueron derribados, como pasó, por ejemplo, con el edificio modernista de la familia Matute, en Komentukale, de Durango.

Todavía estaba (y sigue estando) por resolver el expediente protector incoado para Goiuria por la "Delegación de Cultura" en 1980. Etxaburutorre estaba en ruinas. Muntsaratz no se había desmoronado gracias a los apuntalamientos instalados por el arquitecto Pedro Mari Basañez y la iglesia de San Agustín de Etxebarria presentaba un grave deterioro. Los cambios urbanísticos de Durango supusieron la desaparición de ensanches como el de Ermodo, que albergaba edificios proyectados por importantes arquitectos como Juan de Arancibia, Manuel María Smith o Pedro Guimon; el cine Tavira y el batzoki fueron derribados; la ermita de la Vera Cruz se hundió; lo mismo pasó con la casa-torre de Zaldibar… y podíamos continuar con ejemplos de más pueblos.

En el ámbito de los yacimientos arqueológicos el panorama era más dramático. Las canteras




Ferrería Aranekoa. Tabira. *Txelu Angoitia*



Estación de tren de Durango. *Txelu Angoitia*



Palacio de la familia Matute, Komentu kalea. Durango. 1980. *Archivo Municipal de Durango.*

de Atxarte y Mañaria habían destruido varios de ellos y amenazaban seriamente la cueva Bolinkoba con un gran yacimiento paleolítico. Las explotaciones forestales hacían tabla rasa de monumentos megalíticos que habían perdurado durante milenios. Recientemente, a principios de 2011, se ha cerrado al público la cueva Askondo de Mañaria, tras el descubrimiento en su interior de pinturas rupestres de indudable importancia científica. El vestíbulo de la cueva había sido destruido por una cantera contigua y el yacimiento paleontológico sufría expolios desde hacía años.

En el campo de la arqueología urbana, hasta la declaración de las áreas de presunción arqueológica, a mediados de los años 90, la posibilidad de proteger y estudiar los restos del pasado se reducía a casos muy excepcionales. Era práctica habitual, ante la aparición de restos antiguos, callar y destruirlos inmediatamente para no tener que parar las obras, como se hizo, por ejemplo, al acondicionar el entorno de la ermita de Gazeta en Elorrio. A estas destrucciones habría también que agregar otros hechos como la voladura de la cruz de Kurutziaga por la extrema derecha, en junio de 1980, o las continuas agresiones en forma de pintadas que soportaban nuestros monumentos, fruto de la actividad política y social del momento.

En general, los edificios del patrimonio religioso se han conservado mejor que los civiles, aunque su arte mueble se ha resentido con frecuencia.

Los cambios de ritual tras el concilio Vaticano II condujo a la hoguera a centenares de objetos histórico-artísticos y etnográficos que deberían de haber sido conservados. Por aquel entonces, el Obispado disponía de un incipiente museo diocesano en Derio, cuyos responsables marcaban directrices que, a menudo, no eran tenidas en cuenta por muchos curas y párrocos.

También ha habido personas sensibilizadas con el patrimonio que actuaron y lograron evitar destrucciones; incluso lograron que la administración pusiera los fondos necesarios para la recuperación de edificaciones históricas en serio peligro de ruina. Una carta de José Miguel de Barandiaran, dirigida a la corporación de Abadiño, influyó para que la cantera no devorase Bolinkoba, en Atxarte. En otros casos, la intervención oficial del Ararteko Juanito San Martín o del diputado José Luís Lizundia, este último en la defensa de Etxaburu y Muntsaratz, fueron decisivos a la hora de inclinar la balanza hacia el lado conservacionista. No podemos olvidar la labor del padre Vicente Zabala que impulsó la restauración de la iglesia de San Pedro de Tabira y la conservación del arte mueble eclesiástico de Durango, así como la recuperación de la iglesia de San Fausto, después de largos años de ruina.

Hórreo en Zenita. Elorrio. *Txelu Angoitia.*



## Situación actual

Actualmente, según la Ley de Patrimonio Cultural Vasco (7/1990 del 3 de Julio), son varios los niveles de protección de los que puede gozar un elemento:

- El de **CALIFICADO**, que ostentan los que han sido declarados monumentos. Goza de protección.
- El de **INCOADO**, que indica que a dicho elemento se le ha abierto un expediente de declaración que aún no está resuelto. Mientras se estudia el caso tiene la misma protección que si se hallase declarado.
- El de **PROPUESTO**. En esta clasificación hay una cantidad numerosa de edificios y elementos diversos. Esta categoría no ofrece protección alguna.
- El de **ELEMENTO A CONSERVAR**. Los ayuntamientos en sus Normas Subsidiarias de Planeamiento Urbanístico incluyen elementos de interés para su preservación. Es un listado muy genérico y extenso que puede sufrir alteraciones a criterio de la Corporación del momento.

Torre de Lariz. Durango. *Archivo Municipal de Durango / Txelu Angoitia.*






Ermita de San Bartolomé. Elorrio. *Txelu Angoitia.*

A día de hoy, 16 edificios y 5 conjuntos han sido declarados o se les ha incoado expediente como monumentos en los 13 municipios que configuran el Duranguesado lo cual les otorga una protección legal plena.

Pero la recesión económica merma los escasos presupuestos públicos destinados a la recuperación de nuestro patrimonio cultural. Ello se refleja en la falta de mantenimiento de los elementos restaurados como ocurre con el hórreo de Ertzilla (Iurreta) del siglo XVII restaurado en 1986, con gran esfuerzo, por la Diputación Foral de Bizkaia, y que muestra un preocupante deterioro.

Es inminente la pérdida de la tejera de San Agustín de Etxebarria; única tejera que se conserva en Bizkaia y a la que hace ya varios años se le hundió la cubierta y cuya restauración urge. La situación de los últimos hórreos del Duranguesado no es halagüeña. Sirvan de ejemplo los de Ormaetxe y Zalduena, en Berriz, o Zeitaldekoa, en Elorrio.

Por otro lado, es grave la pérdida paulatina de los elementos de arqueología industrial con el hundimiento de las últimas instalaciones ferronas. En este apartado podríamos citar el progresivo deterioro de complejos industriales de gran importancia antaño, como el de Arandia en Iurreta, con puente, ferrería y molino, el avanzado estado de degradación en el que se halla sumido uno de los elementos industriales más antiguos e importantes de nuestra merindad como lo es la ferrería de Aranekoa en Tabira o la total desaparición del complejo ferroviario que ha albergado Durango desde finales del siglo XIX.

Preocupan también los planes de la agencia URA del Gobierno Vasco que, para minimizar los daños de posibles inundaciones, proyecta derribar edificaciones sitas en los cauces o riberas de nuestros ríos, entre ellos el puente de Arandia, la casa cural de Iurreta, o presas y complejos hidráulicos de molinos y ferrerías con siglos de historia.

Nos inquieta la situación de las tablas de la techumbre de la ermita de San Bartolomé de Mio-





Cine Tabira y Batzoki de Durango. *Foto Sol.*

ta en Elorrio, con su rico repertorio de círculos incisos y policromados con rosetas, hélices y cruces del siglo XVI, y que necesita una urgente intervención. Desmontada desde hace décadas, aguarda su reconstrucción la ermita de Santiago de Orozketa en Iurreta. De igual manera, las obras de recuperación de la ermita de los Santos Antonio de Azkorre siguen inconclusas. La casa cural de Iurreta se quemó y ahí está...

Los robos han sido otra de las plagas de nuestras iglesias y ermitas. Lejos queda la década de los años 80 cuando perdió nuestro patrimonio más de una docena de tallas, pero recientes sustracciones, como la de la ermita de San Juan de Gazeta en Elorrio, hacen renacer nuevamente los temores. Es necesario tomar medidas que en algunos casos pasan por guardar las imágenes en espacios habilitados con la necesaria seguridad, trasladándola a la ermita en días señalados, como los de las fiestas patronales.

No se han alcanzado muchas de las metas que deseábamos. Se ha recorrido un largo camino y ese trabajo ha dado algunos frutos tangibles, pero nos preocupa el futuro de los 256 elementos que están propuestos para ser declarados como monumentos. Es necesario intervenir con carácter urgente en muchos de ellos y en esa labor es necesaria la implicación de todos los estamentos de la administración y de los agentes culturales y sociales interesados. a



Restauración de Muntsaratz. *J.M. Uriarte.*

**Jon Irazabal**

Gerediaga Elkartea

# LEY 7/1990, DE 3 DE JULIO, DE PATRIMONIO CULTURAL VASCO

## » ARTÍCULO 2

**1** Integran el Patrimonio Cultural todos aquellos bienes de interés cultural por su valor histórico, artístico, urbanístico, etnográfico, científico, técnico y social, y que por tanto son merecedores de protección y defensa.

## » ARTÍCULO 4

**1** Son instituciones competentes a efectos de la presente Ley:

**a)** El Gobierno Vasco

**b)** Las Diputaciones Forales

**c)** Los Ayuntamientos

**2** En particular corresponde a los Ayuntamientos la emisión de realzar y dar a conocer el valor cultural de los bienes integrantes del Patrimonio Histórico del pueblo vasco que radiquen en su término municipal.Les corresponde asimismo adoptar, en caso de urgencia, las medidas cautelares necesarias para salvaguardar los bienes del expresado patrimonio histórico cuyo interés se encontrara amenazado.



Tejera de San Agustin (Elorrio) y Casa Cural de Iurreta. *Txelu Angoitia.*


elorrio
aitzakirik ez
SIN EXCUSA
Ondare ibilbidea
Bisita audio-gidatuak
Ruta patrimonial
Visitas audio-guiadas
Iturri Kultur Etxea 946032032
www.elorrio.net

# guztion egitasmoa

Abadiño
Elizateko Udala

*Kultura Arloa*
Área de Cultura



* Errota Kultur Etxea.
* Txanporta Kultur Etxea.
* Udal mediateka.

# BIZKAIKO ZUZENBIDE ZIBILA DURANGALDEAN

## Laburbildutako gainbegirada

TESTUA: **GONTZAL AIZPURUA**

Bizkaian gertatzen den bezala, Durangaldean ere, zuzenbide zibil ezberdin bi ditugu indarrean: Bizkaiko Foru Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibil orokorra. Durangaldean ere, herritar forudun eta forugabeak daude.

Zertan du eragina herritarron bizitzan, eskubide eta betebeharretan, Bizkaiko Foru Zuzenbide Zibilak? Non eta nori aplikatzen zaio? Zergatik Durangaldeko herritar batzuei Bizkaiko Zuzenbide Zibila aplikatzen zaie eta beste batzuei Zuzenbide Zibil Orokorra? Zeintzuk dira bien arteko ezberdintasunak?

Galdera hauei errazki eta zorroztasun gehiegirik gabe erantzutea eta zuzenbide bien arteko elkarbizitzak sortzen duen egoera bitxi bezain ulergaitza ezagutzera ematea besterik ez da lerro hauen helburu apala.

# EL FVERO,
# PRIVILEGIOS, FRANQVEZAS Y LIBERTADES DE LOS CAVALLEROS

hijos dalgo del Señorio de Vizcaya, confirmados por el Rey dõ Felippe. II. nuestro Señor, Y por el Emperador y Reyes sus predecessores.




CON LICENCIA REAL.

En Medina del Campo impresso, Por Francisco del Canto.
A costa del Señorio de Vizcaya, Por orden de Antonio de Zaballa, Vizcayno vezino de Medina del Campo.
M. D. LXXV.

## 1
## Bizkaiko Foru Zuzenbide Zibila

Askoren ustearen kontra, Bizkaiko Foru Zibila ez da iraganeko erlikia bat, ez eta landa lurrei edo baserriei soilik lotutako araudia, Bizkaiko biztanleen % 60ri aplikatzen zaion legeri bizia baizik. Durangaldean, herritarren %65a izango da, gutxi gora behera, forudun.

Indarrean dagoen uztailaren 1eko 3/1992 legeak (Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzkoa, eta Bizkaiko Foru Zuzenbide Zibila bere baitan) gure ohitura juridikoetan sustraituta dauden erakunde zibil gaurkotu gutxi baino ez ditu arautzen; besteak beste, eta orokorrean honakoak:

### 1.1 OINORDETZAK:

- Jaraunspen edo herentziak. Testamentuak (Eskuorde edo "komisario" bidezko testamentua, eta testamentua egiteko poderea. Ermandadeko testamentua).
- Nahitaezko jarauntsia, eta seniparteak derrigorrezko oinordekoen artean banatzeko askatasuna.
- Oinordetza itunak.
- Testamenturik gabeko ondorengotza…

### 1.2 EZKONTZAKO ONDASUNEN JAURBIDEA EDO EKONOMIA ARAUBIDEA

**Foru Komunikazioa:** Ezkontideen ondasunekiko (irabazitakoak zein ezkontide bakoitzarenak), administrazio eta xedapen egintzak. Jaurbidearen amaitzea ezkontide baten heriotza edo dibortzioagatik, eta ondasunen banaketa…

### 1.3 TRONKALITATEA

Bizkaiko forudun tokietan dauden ondasun higiezin edo onibarrak familiarekin duten lotura, eta lotura hori mantentzeko dauden betebehar eta mugak tronkaleko ondasunen edozein –"inter vivos" edo "mortis causa"- eskualdaketetan. Tronkaleko senideen eskubideak. Erosteko lehentasun eskubidea; saka eskubidea…

### 1.4 BIDE ZORRAK

Hogei urteko preskripzioaren bidez eskuratzeko eskubidea….

## 2
## Zein da Bizkaiko Foru Zuzenbidearen lur ezarpen eremua eta zein Zuzenbide Zibil Orokorrarena; alegia, non aplikatzen da bata eta non bestea? Eta Durangaldean?

Bizkaiko foruak Bizkaia osoan du indarra, (infantzonatu edo lur lauan) Bilbo udal mugarte osoan eta Urduña, Balmaseda, Bermeo, Durango Ermua, Gernika, Lanestosa, Lekeitio, Markina, Ondarroa Otxandio, Portugalete eta Plentziako hirietako gune forugabekoetan izan ezik.

Beraz, Durangaldeari dagokionez, Bizkaiko Zuzenbide Zibila hurrengo herrietan du indarra: Abadiño, Atxondo, Berriz, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Garai, Mallabia, Mañaria eta Zaldibar. Baita Durango, Ermua eta Otxandioko gune forudunetan ere.

Zuzenbide Zibil Orokorra Durango, Otxandio eta Ermuko lurralde edo zati forugabeetan aplikatzen da.

## 3
## Zein da Bizkaiko Foru Zuzenbide Zibilaren pertsona ezarpen eremua, hau da nori aplikatzen zaio Bizkaiko forua? eta nori Zuzenbide Zibil Orokorra?

Bi auzotasun zibil daude Bizkaian: foruduna eta forugabekoa. Durangaldean ere.

Auzotasun zibilaren arabera araudi bat edo bestea aplikatzen zaie bizkaitarrei eta Durangaldeko herritarrei. Bizkaiko Foru Zibila indarrean dagoen tokietan auzotasun zibila dutenei, Bizkaiko forua aplikatzen zaie; forugabeko tokietan auzotasun zibila dutenei, Zuzenbide Zibil Orokorra.

Tronkalitateak ezartzen dituen muga eta betebeharrak bizkaitar guztiei dagozkie, ez bakarrik forudunei.

Tronkalitateagatik sortzen diren eskubideak tronkaleko senideei dagozkie, edozein dala euren auzotasuna, Bizkaikoa izan zein ez izan.

Zelan lortzen da auzotasun zibila? Jaiotzez edo 10 urteko egoitzaren bitartez (edo 2 urteko egoitzarekin, errolda zibilean auzotasun zibila irabazteko espedientearen bitartez). Auzotasun zibila nahita edo nahigabe aldatu dezakegu (eta genuena mantendu egoitzaz aldatu arren).

## 4
## Zeintzuk dira Bizkaiko Foru Zuzenbidearen berezitasunak?

### 4.1 OINORDETZAK:

**Senipartea:** Senide jakin batzuei, -derrigorrezko oinordekoei-, ezinbestean utzi behar zaiena, honakoa da:

Ondorengoentzat: (seme alabak eta gainontzeko ondorengoak): ondasun guztien lau bostenak (4/5). Beste bostena askatasunez bana daiteke.

Testamentu egileak askatasun guztiz bana ditzake derrigorrezko oinordetza osatzen duten ondasunak ondorengoen artean, bakarra aukeratuz eta besteak baztertuz; hau da, seme, alaba edo iloba bati utzi ahal dizkio ondasun guztiak (edo zati bat) eta beste ondorengoei ezer ez.

Zuzenbide Zibil Orokorrean, ondorengoen senipartea ondasunen bi herenak (2/3) osatzen dute, baina ondasunak derrigorrez banatu behar dira seme-alaben artean, eta guztiei utzi behar zaie gutxienez ondasunen parte bat, seniparte ertsia deritzona.

Ezkontideak (edo izatezko bikotekideak) ondasunen erdiaren gaineko gozamena izango du (seme alaba edo gurasoekin batera balego), edo ondasunen bi herenen gozamena alboko lerroko familiakoekin batera balego. Ondasun guztien gaineko gozamen unibertsala utzi ahal izango dio testamentu egileak. Zuzenbide zibil orokorrean, ezkontideak ondasunen heren baten gozamena dauka seme-alabekin batera balego, eta aurrekoekin balego ondasunen erdiaren gozamena

**Ondasunak tronkalekoak badira**, ondasunen jabeak ezin ditzake inorenganatu edo eskualdatu ordainbidezko nahiz doainezko egintzen bidez, tronkaleko senideen eskubideak errespetatu barik.

Tronkaleko ondasunei dagokienez, tronkaleko senideak, alboko lerroko senideak barne, ezkontidearen aurretik "heredatzeko" eskubidea daukate.

Adibidez, seme-alabarik izan ez duen alargun edo izatezko bikotekide batek bere ezkontidearekin edo bikotekidearekin bizi izan den etxebizitzatik alde egin beharko luke etxebizitza hori hildakoaren familiatik baldin baletor, -tronkalekoa bada- eta horrela aginduko baliote hildakoaren ondasun horrekiko tronkaleko senideek (neba-arrebak, gurasoak, osaba-izebak, lobak, lehengusu-lehengusinak) nahiz eta ondasunen jabearen borondatea bere ezkontide edo bikoteari dena uztea izan eta horrela adierazi testamentuan.

**Eskuorde edo "Komisario" bidezko testamentua:** Konfidantzazko hirugarren bati, gure testamentua egiteko boterea eman diezaiokegu. Hirugarren horrek, gure oinordekoa izendatu dezake edo oinordekoen artean ondasunak banatu askatasun osoz. Ezkontidea edo izatezko bikotekidea denean eskuordeko edo komisarioa, - "alkar poderoso" deritzona-, ondasunen administrazioa eta gozamena izan dezake boterea erabili arte –ezkontzaren jaurpidea foru komunikazioa denean- (bizitza osorako edo kausatzaileak, -eskuordetzaileak- ematen dion epera arte). Tronkaleko senideek ezin izango diote ondasun hoien gaineko gozamen eta administrazio eskubidea ukatu bizi den bitartean.

Foru Zuzenbide Zibilaren "izarra" den eskuorde bidezko testamentu hau, alde batetik ezkontide edo bikotea (eskuordeko izendatzen zaionean) babesteko tresna dugu, eta bestalde, jaraunspena modurik egokienean banatzeko tresna (ustiapen edo negozio bat zatitu barik iraun arazteko; oinordekoen artean gehien behar duenari edo egokienari ondasunak egokitu ahal izateko).

Forudunak ez diren bizkaitarrak ere, testamentu boterea erabili dezakete, baina boterearen edukia eta eskuorde edo komisarioaren eskubide eta ahalmenak ez dira forudunak egiten dituzten bezalakoak. Auzotasun ezberdineko bizkaitar bik (ezkontide edo bikotekide) elkar izendatzen badute komisarioa, euren eskubide eta ahalmenak ezberdinak izango dira.

### 4.2 EZKONTZAKO ONDASUN JAURPIDEA (EZKONTZAREN EKONOMIA ARAUDIA). FORU-KOMUNIKAZIOA.

Foru-komunikaziopean ezkonduta daudenek (itundu dutelako, biak forudun direlako, edo auzotasun berdina izan ezean, batera bizitzeko izan duten lehenengo ohizko egoitza lur lauan balego) erdibana izango dituzte ondasun mugiezin edo mugikor guztiak, edozein dela ondasunon jatorria (batenak zein bestearenak izan; ezkontzara bakoitzak ekarritakoak zein ezkontzan zehar irabazitakoak, ondasunak dauden lekua zer ikusirik ez duela).

Ondasunei buruz erabakitzeko, ezkontide bien baimena beharko da. Hau da, ezkontideen edozein ondasun eskualdatzeko (adibidez etxea zein kotxea saldu edo dohaitza egiteko) bion baimena beharrezkoa da.




Ezkontide bat hiltzen danean eta bion seme-alabak daudenean, foru komunikazioa ondasun erkidego baten bihurtzen da alargun eta hildakoaren seme-alaben artean; ondasun guztien erdia alargunarentzat izango da (nahiz eta bere jatorrizkoak edo berak irabazitakoak ez izan, edota guztiak bereak izan) eta beste erdia ondorengoentzat.

Bion semea-alaba gabe ezkontide baten heriotzagatik amaitzen denean ezkontza, foru komunikazio erregimena (dibortzio edo banaketagatik amaitzen den moduan) irabazpidezko sozietateari ezartzen zaizkion arauei jarraituz iraungiko da.

**4.3 TRONKALITATEA ETA SAKA ESKUBIDEA.**
Bizkaiko Zuzenbide Zibilaren ezaugarririk garrantzitsuena dugu tronkalitatea.

Esan bezala, Forudun lurretan dauden higiezin edo onibar tronkalekoak (familiatik jasotakoak), ordainbidezko (salmentak) zein dohainezko (oinordetza, dohaitza) eskualdaketan, tronkaleko senideen eskubideak errespetatu behar dira. Ondasun tronkalekiko betebehar edo mugak bizkaitar guztiei dagozkie, -eta bizkaitar izendakoei-, ez soilik forudunei.

Ondasun tronkalak ordainbidez inorendu (saldu) nahi direnean eskribau bidezko deia edo jaki-

narazpena egin behar zaie tronkaleko senideei, eskuratzeko lehentasun eskubidea daukatelako.

Tronkaleko ondasunak inorendu egingo balira aipatutako deia egin gabe, tronkaleko senideek saka eskubidea izango lukete, hau da, salmenta deusezteko eta ondasunarekin geratzeko eskubidea aditu batek jarritako bidezko prezioan.

Dena den, Forudun udaletako hirilurretan -edo indarreko hirigintza-planen arabera hirilur izango direnetan-, ez dago lehentasunez eskuratzeko aukerarik ezta saka eskubiderik ere.

## 5

## Zergatik herri batzuetan Bizkaiko Foru Zibila eta besteetan Zuzenbide Zibil Orokorra? Zergatik herri bereko toki batzuetan forua eta besteetan Zuzenbide Zibil Orokorra? Zeintzuk dira hiribilduetako lurralde forudunak? Durangon Foru Zuzenbidea aplikatzen da?

XII eta XIV. mendeen artean eratu edo sortzen ziren hiribilduei, Bizkaiko jaunak (edo andereak) Logroñoko Forua ematen zien, Gaztelako legeen menpean -orokorrean hitzeginda- utziaz, eta horrek, besteak beste, gaur egun bizi dugun hiribildu eta elizateen arteko banaketa edo dualtasun juridikoaren jatorri garrantzitsuenetako bat izan zen.

XIV mendearen amaierarako Bizkaiko elizateetan, -infantzonado edo lur laua zeritzona-, Bizkaiko forua aplikatzen zen, -oraindik idatzi gabe zegoena-, eta hiribilduetako harresidun barrutietan, (salbuespenekin) Gaztelako legeak[1].

Beraz, eta salbuespenak alde batera utziz, hiribilduetako hiriguneetan Zuzenbide Zibil Orokorra aplikatzen zen eta lur lauan, elizateetan, Bizkaiko Foru Zuzenbide Zibila[2].

Mendeetan zehar izandako hiribildu edo urien hiriguneen garapen eta zabaltzeak forudun landa lurrak ziren eremuetara, Zuzenbide Zibil Orokorraren hedatzea ere ekarri zuen Bizkaiko forua indarrean zegoen guneetara, (toki hauetako ondasunen natura tronkala alde batetik, eta biztanleen forudun izaeragaitik zuten eskubide eta betebeharrak beste batetik, aldatuaz) zuzenbide bien arteko mugen etengabeko fluktuazioa eraginez eta sorraraziz.

XIX. mendeko bigarren partean eta XX. Mendeko lehenean eman ziren uri eta elizateen arteko anexioen ondorioz ere, zuzenean batzutan eta urteak pasa ahala besteetan, Bizkaiko forua aplikatzen zen toki askotan Zuzenbide Zibil Orokorra aplikatzen hasi zen.

1. Egia da Durangoko merindadeak bere erakunde propioak izan zituela mendeetan eta Bizkaiko lehen foru idatziaren aurretik (1452. urteko Foru zaharra), arau bilduma edo foru idatzia izan zuela, -XIV. mendekoa-. Arau bilduma hori Bizkaiko jaurerriaren parte izan baino lehen XVI. mendera arte aplikatzen zen, baina gaur egungo lege zibilaren egoerarekin harremanik ez duenez, kontua alboratuko dugu).

2. Hiri eta elizateen gatazken ondorioz, 1630. urteko "Konkordioak" ematen zuen aukera egikarituz, XVIII. mendean Elorrio eta Otxandioko hiribilduak Bizkaiko foruaren oinordetzari buruzko arauak aplikatzea erabaki zuten.

Zuzenbide bien lur ezarpen eremu mugen aldatzearekin, gero eta zailagoa egiten zen jakitea non aplikatzen zen bakoitza. Gainera, urietako biztanleek elizateetan zeuzkaten ondasun higiezinei zegokienez, Bizkaiko foruko tronkalitatea errespetatu behar zuten.



Hileta Garain.

### 1959. URTEAN BIZKAIA ETA ARABAKO FORU ZUZUENBIDE ZIBILAREN KONPILAZIOA-LEGEA ONETSI ZEN

Konpilazioaren egileak egiaztatu zuten Zuzenbide bien arteko talka eta lur -eta pertsonen- ezarpen eremuen zehazgabetasunak arazo ugari eta egoera absurdu eta kaltegarriak sortarazten zituztela, eta urien zabaltzeen ondorioz, - Zuzenbide Zibilak zuzenbide munizipalaren gorabehera topografikoaren menpe egotearen ondorioz- Foru Zuzenbidea oso errotuta zegoen tokietatik desagertzea suposatzen zuela. Baina egoera konpondu beharrean, onartu ziren arauekin larriagotu egin zen[3].

Durangok Iurreta anexionatu zuen 1926. urtean. Iurretak –iurretarrek- ez zuten galdu euren forudun izaera eta Bizkaiko Foru Zibila aplikatzen zitzaien. Baina 1959. urteko konpilazioaren eraginez, "urbanoak" ziren guneak forudun izaera galdu zuten (nekazaritza ustiapenerako ez zen lur guztia forudun izaera galtzen zuen orokorrean) eta toki hoietako herritarrak forudun izatetik forubakoak izatera pasatu ziren. 1990. urtean Iurreta Durangotik banatu zenean, aipatutako toki forubako hoiek ez zuten forudun izaera berreskuratu, hiri bati erantsirik zeuden elizateak hiri horretatik banantzeak ez zuelako aldarazten ezarri beharreko zuzenbide zibila.

### 1992. URTEAN EUSKAL HERRIKO ZUZENBIDE ZIBILAREN LEGEA ONETSI ZEN

Bizkaiko Foruak Bizkaia osoan izan behar zuen indarra lehen aipatutako urietako gune forubakoetan izan ezik. Gune forugabekoak udal bakoitzaren jatorrizko hirigunearen gaur egungo (momentuko) lurrak eta legea indarrean sartzen zenean indarreko hirigintza-planen arabera hirilur bezala sailkatuta zeuden bere albokoak ziren. Itzulpena: 1994. maiatzaren 4ean, Bizkaiko Batzar Nagusiek urietako gune forugabekoak zehaztu edo mugatu zituzten plano batzuetan finkatuz. Zuzenbide bien arteko lur ezarpen eremuen fluktuazioarekin bukatu zen behin betiko, baina beste egoera bitxiak sortu ziren.

3. Orokorrean, bakarrik nekazal ustiapenentzat egokituta zeuden guneak mantendu ahal zuten Bizkaiko foru zibila, eta Plangintza urbanistikoen arabera, aipatutako hirien hirigunearen zabaltzearekin Zuzenbide Zibil Orokorra ere zabaltzen jarraitu zuen Bizkaikoaren ezarpen eremuak murriztuz.




Bizkaiko Foru Zibila eta Zuzenbide Zibil Orokorraren arteko mugak Durangon.

## 6
## Adibide batzuk:

**Iurreta.** Konpilazioaren eraginez forubagabekoak bihurtu ziren Iurretako guneak, forudun izaera berreskuratu zuten 1992. urteko legearekin; baina toki hoietan herritasun zibila zuten iurretarrek ez zuten forudun izaera bat batean berreskuratu.

**Durangon**, eta beste hiribilduetan, Batzar Nagusiak (Udaletxearen iritzia kontutan izan barik) onartutako planoen ondorioz, urteetan forugabeak ziren hirigune batzuk, forudunak izatera pasatu ziren; baina toki hoietan bizi ziren herritarrak -edo legearen onespenaren ostean bizitzera joan zirenak- ez zuten berehala "irabaziko" forudun izaera edo auzotasun zibila; 10 urte (orokorrean) igaro behar izan ziren horretarako.

Forugabeko gune izatetik forudun izatera, 1992. urteko lege berriarekin batbatean pasatu zirenen artean: Aramotz auzunea, San Fausto auzunea, Tabira auzuneko luze zabalera gehiena, …

Mugaketa berriaren ondorioz ere, kale batzuk, foruaren ezarpen eremuan sartu ziren, adibidez "Santa Susana".

Beste batzuetan, alde bat foruduna izango zen eta bestea forugabekoa:

- Tabira kaleko 3. zenbakira arte Zuzenbide Zibil Orokorraren eremua da, eta 3 zenbakiko ataritik Tabiraruntz, Foru Zuzenbideko eremua.
- Santikurutz taldearen Hagin kaleko 6 zenbakiko atarira arte, gune forubakoa, besteak, forudunak.
- Zubiaurre kalearen 9. atarira arte, gune forubakoa; eraikin bereko ("Arriluzea" eta "Zumar" Parkeko) 11,13, 15, 4, 6, eta 8 atariak, forudunak.
- Astxiki kalean eta Askatasun etorbideko eraikinen batek arazo bera dauka.
- Fauste-bekoa auzunea osoa lurralde foruduna da.

Antso Estegiz kalean gertatzen dena ez dago argi. 1994.urtean onartutako planoen arabera ematen du 13 eta 21. atariak osatzen duten eraikinaren erdian dagoela zuzenbide baten eta bestearen lur ezarpenaren arteko muga.

Erdikustera eman den egoera nekez ulertu eta onartu daiteke. Bizkaian gertatzen den moduan, Durangaldean, herri batzuk forudunak dira eta beste batzuetan (Durango, Otxandio, Ermua) gune forudun eta forugabeak daude. Herritar batzuk forudunak dira eta besteak forugabekoak. Forudunak eta forugabekoak ez daukate oinordetza eskubide eta betebehar berdinak; oinordetza antolatzeko erabili dezaketen lege tresnak ezberdinak dira; euren ezkontzako ondasunen erregimena, ezer itundu ezean, ezberdina da; ezkontide bik auzotasun zibil ezberdina dutenean batak bestearekiko dituen oinordetza eskubide eta betebeharrak ezberdinak dira; toki batzuetako ondasun higiezin edo onibarrak tronkalekoak dira, -horrek suposatzen duen eskualdatzeko mugekin, eta beste tokikoak ez…



Ezkontza Gatzagan (Zaldibar). *Ilargi Zaldibarko argazki taldea.*

Zentzu gehiegirik ez badu probintzia berean, edo eskualde berean horrelako ezberdintasunak egotea, herri baten barruan, kale eta atariaren arabera ere batzuetan ezberdintasun hoiek jasan behar izanak erabat ulertezina da. Gainera, behar den zorroztasunekin ez dago jakiterik forugabeko udal hoietan non dauden zuzenbide bien arteko lur ezarpen eremu mugak, nortzuk diren forudunak eta nortzuk forugabekoak… zentzugabekeria da[4]. Oso litekeena da egoera bitxi honen gaineko ezjakintasunen ondorioz, (Foru Zuzenbidea aplikatzen dela ezagutzen ez delako) egin diren testamentu asko, jarauntsi banaketa asko, testamenturik gabeko ondorengotzak, ondasasun eskualdaketak -ordainbidezkoak zein dohainezkoak- (salmentak, dohaitzak….) deuzezak edo deuzestagarriak iza-



tea, (balio gabeak), tronkaleko senideen eskubideak errespetatu ez direlako, ezkontidearen baimenik gabe egin direlako,… Dena den, ezjikantasun horrek (herritarrona orokorrean baina batez ere eragile juridiko askorena) alde ona ere badu: auzi, arazo eta gatazka ugari ekidin ditu. a

**Gontzal Aizpurua**
Abokatua

4. Zuzenbide bien arteko mugen zehatasun eza areagotzeko 1994. urtean Bizkaiko Batzar Nagusiak onartu zuten planoetan agertzen direnak eta Bizkaiko Foru aldundiak 2006an argitaratu zituen mugak ez datoz guztiz bat.







el tra

complejo
ferro-molinero.

# El Pobal

errotako burdingintzako
gunea.




**Carretera de Muskiz-Sopuerta**
**Muskiz-Sopuertarako errepidea**

**Bizkaiko Foru Aldundia**
**Diputación Foral de Bizkaia**

ORDUTEGIAK
HORARIOS





El Pobaleko burdinola
**Ferrería de El Pobal**

# abajo del hierro

En vivo. Para descubrir y conocer cómo era una actividad básica en la Bizkaia pre-industrial.

Un Museo realizado con instalaciones y maquinaria originales (s. XVI-XX), lo que le ha supuesto el reconocimiento como Conjunto Monumental.

Y que tienes muy cerca. En la carretera de Muskiz-Sopuerta.

# burdin lana

Bizirik. Bizkaiko aurreindustriaren oinarrizko ekintza bat nolakoa zen aurkitzeko eta ezagutzeko aukera.

Jatorrizko instalazio eta makineriaz (XVI-XIX. mendeak) gauzatutako Museo hau, Multzo Monumentala aitortu da.

Eta zugandik oso gertu dago. Muskiz-Sopuertarako errepidean.

De martes a domingo por la mañana
•Verano (15 abril-15 oct.): 10-14•16-19 h.
•Invierno (16 octubre-14 abril): 10-14 h.

Asteartetik igandera
•Udaldia (apirilak 15-urriak 15): 10-14•16-19
•Negualdia (urriak 16- apirilak 14): 10-14

Burdin lanaren erakustaldia: Larunbatetan goizean
Demostración del trabajo del hierro: Sábados mañana

**Bisita gidatuak orduro • Ikasleentzako gida didaktikoak.**
**Visitas guiadas cada hora • Guías didácticas para escolares.**

t: 629.27.15.16 • www.bizkaia.net/elpobal

TEXTO: **LOREA MADINA**
FOTOS: **ARCHIVOS LUIS MADINA Y A.G.A.**

# LOS **TESOROS OCULTOS** DE ELORRIO



Se veía de lejos que no eran oriundos de la villa. Les delataban sus enormes bigotes rubios, sus ojos azules, sus ropas de buen paño y sobre todo su extraña lengua. Habían arribado al pueblo requeridos por el boticario, José María Goikoetxea Alzuaran, que, además de hombre ilustrado, sucumbió a la fiebre del petróleo. En su afán por extraer este hidrocarburo del subsuelo elorriarra, convenció a las autoridades para que le concedieran la pertinente licencia. Esta le permitiría buscar crudo en una localidad, que por entonces dedicaba sus esfuerzos a la agricultura y la ganadería y que nada tenía que ver con prospecciones petrolíferas o actividades similares.



Prospección petrolífera en Elorrio

Arrancaba el siglo XX y con él toda una revolución: la de la modernización. El país se quería subir al tren que movía Europa y quería hacerlo con dignidad y autosuficiencia. Voces como la de Sanchez de Toca se habían hecho oir a través de artículos de eficientes títulos como "El petróleo: artículo de primera necesidad para nuestra economía". En él se lanzaban soflamas contra la importación de crudo, en favor de "una autentica y verdadera emancipación de los codiciosos y corruptores acaparamientos que inutilizan el aprovechamiento económico de esta materia prima, indispensable para la creación, implantación y crecimiento en España de industrias esenciales, tanto para el fomento de la economía agraria, como de otras que pudieran germinarse", suscribía. Por aquel entonces el petróleo estaba monopolizado por los trust internacionales Standard y Shell. Sus propietarios se repartían amigablemente la tarta que en estas lides operaban en el mercado del estado.

Corría el año 1916 y Goikoetxea Alzuaran, inventor y exportador a África de medicamentos contra el paludismo, entre otras enfermedades, intuía la necesidad de adentrarse en el proceloso mundo del abastecimiento energético. No perdió el tiempo y temiendo perder el tren, el farmaceutico pidió a los Gobiernos Civiles de Gipuzkoa y Nafarroa la concesión de las explotaciones de pertenencias minera de petróleo y derivados hidrocarburados, en estos territorios. Trámites que se formalizaron en agosto y septiembre de 1918.

Después llegó el momento de buscar los recursos económicos con los que facturar los gastos de los sondeos. Goikoetxea Alzuaran, hombre de gran carisma y mejor palabra, logró convencer de su propósito a Antonio Gaytán de Ayala Artazcoz, Marqués de Tola de Gaytán, Baltasar de Amezola Aspizua, Antonio de Landaburu Murgoitiobeña, José María de Unzeta Berriozabal, Marqués de Casajara, Antonio de Murua Rodríguez de Paterna, Conde de Lariz y los hermanos Acillona Durañona, José Pablo y Guillermo, el primero de ellos Marqués de Acillona.

Reunidos todos ellos ante el notario Luiz Pérez-Ordoyo Lapeña, el 4 de noviembre de 1919, se escrituró la constitución de la sociedad Arganmel, con un capital inicial de 200.000 pesetas "de la época". Dinero que invertirían los socios fundadores arriba mencionados, según recoge el acta notarial propiedad de Pilar Landaburu. Esta comunidad de bienes tendría una duración de cinco años prorrogables otros cinco.

El farmacéutico se hizo también con la confianza del vecino de Elorrio Pedro Arruabarrena. A éste le prometió un 0.5% de los beneficios obtenidos por la venta de todo lo extraído. Se sumó a este equipo de "buscadores" Luis Zarraoa oriundo del barrio Aldape.

Conformado el grupo que lideraría las primeras prospecciones, Goikoetxea Alzuaran presentó a las autoridades su plan de extracciones. Estos le dieron carta blanca para iniciar las prospecciones en un ámbito de actuación que comprendía desde el barrio de Ubera, en Bergara, hasta Gatika. De esta guisa llegaron a Elorrio los trabajadores y técnicos venidos de Bélgica, Alemania, Alsacia e incluso Rusia. Todos ellos expertos conoce-


LUIS PÉREZ-ORDOYO Y LAPEÑA
NOTARIO-ABOGADO
ELORRIO
Escritura de constitución de la sociedad
Arganmel
Fecha del original 4 de Noviembre de 19[illegible]. Número del protocolo 105.

Archivo Pilar Landaburu.

dores de los procedimientos necesarios para acometer una empresa como la que pretendían. Una empresa en la que también se vieron implicadas fabricas de la villa como Ariño y Zubia, donde se elaboraban algunos de los componentes de la maquinaria pesada que luego serviría para las labores de perforación.

No quedan testigos presenciales directos de aquellos momentos históricos. Únicamente unas conversaciones grabadas a gentes de la época, hará ya más de dos décadas por Luis Madina, guardadas ahora como oro en paño. En esos tesoros en cinta cassette escuchamos a Pedro Arruabarrena decir "No eramos ilusos" recordaba casi 60 años después de se que viviera aquella gesta. Para el inversor elorriarra "Goikoetxea era un hombre muy inteligente obsesionado con la creencia de que en Elorrio había petróleo. Se dejó la piel en el empeño. Ayyyy!!!! si en Elorrio hubiera salido petróleo. Quién sabe el vuelco que habría significado para el pueblo".

**"Ayyyy!!!! si en Elorrio hubiera salido petróleo. Quién sabe el vuelco que habría significado para el pueblo"**

Con aquel permiso y toda la ilusión se iniciaron los sondeos petrolíferos. No fueron los primeros de Euskal Herria, estos se emplazaron dos años antes, en 1915, en Salvatierra, Araba. Pero los de Elorrio sí fueron los pioneros en Bizkaia y Gipuzkoa. Ya hemos dicho que Goikoetxea Alzuaran era un hombre adelantado a su tiempo.



Fonda La Paz, Elorrio

## Empresa de titanes

Desembarcados los expertos, los casados eran acogidos en caseríos del entorno, mientras los solteros se alojaban en la "Fonda La Paz". Un edificio de solera que se erigía en el cruce de caminos entre Elgeta y Bergara. Hoy por hoy, junto a la plaza del magnolio, al final de la calle Berrio Otxoa.

Con los recursos humanos y materiales ya en la villa, la primera intervención se emplazó en Aldape, en las cercanías del caserío Maurtu. Allí se realizaron dos sondeos. Uno de ellos realmente espectacular, provisto de una torreta de doce metros de altura y un motor propulsado a vapor, que llamaba la atención de propios y ajenos.

Los trabajos fueron siempre a buen ritmo. Se implantaron horarios intensivos, que se prolongaban las 24 horas del día. Las máquinas rugían a destajo, llegó a perforarse un metro diario. Los sueldos no eran malos. El jornal, dependiendo de la responsabilidad, era inmejorable: entre cinco y siete pesetas. Nada mal para una población que vivía del campo y la ganadería, con la venia de las empresas que poco a poco se iban implantando en el municipio. El descanso llegaba los fines de semana y las fiestas de guardar.

La intensidad del trabajo era tal que, no faltaron los momentos dramáticos en forma de accidente laboral mortal. "Un día estalló parte de la carcasa de la máquina perforadora, con tan mala fortuna que le dio en sus partes pudendas a un operario. De emergencia le trasladaron a la Clínica San Sebastián de Bilbao, donde por entonces estaban los mejores especialistas, pero no hubo nada que hacer. Al tercer día de su ingreso, falleció", cuentan quienes entonces ni siquiera habían llegado a vestir pantalón corto y recibieron parte de la historia como si de un cuento para no dormir se tratara.

Cada uno de los metros ganados a la tierra era una victoria. Esta venía a animarse los lunes por la mañana. Entonces, como por arte de birli y birloque, en la boca del pozo aparecía manchas de crudo, que para muchos eran obra de alguien que no deseaba que esta empresa fracasara y de esta guisa alentaba el éxito de la búsqueda. Aunque al hilo de este asunto también hay quien dice que, un día como otro cualquiera, emergió del fondo de la tierra un chorro de oro negro, viscoso y tonalidades verde oscuras. Sin embargo aquello que apareció como el maná no debió ser más que un espejismo pues no volvió a vivirse experiencia similar.

Los esfuerzos titánicos de aquellos fornidos hombres, perseguidores de sueños, fueron



Campamento petrolífero de Elorrio.

infructuosos. Las profundidades del suelo de Aldape se manifestaron secas. Nada broto de aquellos pozos que llegaron a alcanzar los 300 metros de profundidad. Ahora bien, mientras los hombres dirigidos por el capataz belga seguían horadando el subsuelo, otros grupos de buscadores, incansables al desaliento, intentaban localizar oro negro en otros puntos del municipio. Así se "escarbó" en las profundidades de Argiñeta, donde los lugareños aún recuerdan el paso de los "técnicos del petróleo", como se les conocía.

Cerrado el sondeo de Aldape, y con el apoyo fundamental de la compañía Franco Española de Petróleos, la plantilla de perforación se desplazó a Berrio. A un kilómetro en línea recta del primer pozo emplazado en Aldape. Hasta ese punto emigraron los trabajadores, que levantaron una imponente torreta a medio camino entre el caserío de Serraritxua (Orbebarria) y la carretera a Elgeta.

Para este segundo sondeo la maquinaria duplicó sus capacidades, siendo moderna y muy potente.

Trabajadores de la prospección.




ERINNERUNG
ELORRIO

Entre el 22 de febrero de 1923 y el 22 de enero de 1925 se taladró un pozo que llegó a los 846 metros. Sin embargo, la falta de resultados puso también el punto y final a este ciclo de la fiebre del oro en Elorrio. No en vano los recursos económicos empleados fueron muy elevados e hicieron algo más que desgastar el bolsillo de los acaudalados bolsillos que financiaban el proyecto.

El soporte de la maquinaria petrolífera ha llegado a nuestros días en forma de fotografía de despedida. Aquella en la que se ve a todos los trabajadores brindando con vino. Así las cosas en 1925 los que fueron pioneros en estas lides levantaron sus copas en una imagen histórica que refleja el talante de los trabajadores y la enormidad de la obra acometida.

## Leyendas urbanas

A lo largo de la década que permanecieron en Elorrio los técnicos extranjeros pudieron disfrutar de la villa y sus habitantes. Hasta nuestra época han llegado anécdotas reconvertidas en auténticas leyendas urbanas, de las que a falta de testigos oculares vivos no puede contrastarse su veracidad. Se han quedado en mito local.

En ese marco encuadramos la historia del capataz ruso de terrible corpulencia que decían desayunaba media docena de huevos fritos. En caso de que la anfitriona-cocinera no contara con tamaño aperitivo, le tenía que ofrecer y preparar un menu de similar eficiencia calórica.



También se habla del técnico belga, de espíritu cazador, que todos los días, al dirigirse al pozo lo hacía cargando con su escopeta al hombro. Aprovechaba este trayecto para ir disparando contra gallo o gallina que encontrara a su paso. Unas carnicerías que después pagaba generosamente de su bolsillo a los dueños de los animales, para gracia de estos últimos.

Por supuesto, no faltaron las historias de amor. Como la de aquella elorriana que sucumbió a los encantos de uno de los apuestos hombres de pelo rubio y ojos azules. Una mujer que hubo de "escapar deshonrada" a la Alemania natal de su enamorado, tras quedar embarazada, sin haber pasado por el altar.

Sea como fuere, lo cierto, es que, una vez más, quedó demostrado que Elorrio, a pesar de su pequeñez, era capaz de albergar a hombres de carácter, entusiastas, adelantados a su tiempo, que miraban más allá de lo que el común de los mortales podían ver.

## Las riquezas del subsuelo

A principios del siglo XX no hubo provincia que no sucumbiera a la fiebre del oro negro. Cádiz, Sevilla, Santander, Araba, Bizkaia, Burgos, Nafarroa, Gipuzkoa, Barcelona, Almeria, Soria, Málaga, Albacete y Girona fueron, en este orden cronológico, las que, a partir de 1912, protagonizaron episodios de este tipo. En 1923, tras un pequeño impasse de dos años, arrancaron con mucha mayor profusión las prospecciones y los sondeos en busca del codiciado hidrocarburo.

En total y sumando las actuaciones de ambas épocas fueron un total 35 sondeos con cerca de 17.000 metros de profundidad horadados

La guerra civil supuso un nuevo parón en estos trabajos, que volvieron a vivir momentos estelares a partir de 1940. Todo ello alentado por el Instituto Geológico de España, que tres años más tarde, en 1943, en su memoria anual daba por buenas las afirmaciones que desvirtuaban categóricamente la anterior negativa de que el territorio peninsular no guardaba petróleo en su subsuelo.

La respuesta a tantos anhelos y esfuerzos llego el 6 de junio de 1964. Entonces saltó a las primera páginas de los periódicos, que el Pozo Ayoluengo I del municipio burgalés de Sargentes de La Lora había escupido los primeros barriles de oro negro. La explotación se multiplicó por treinta. Unos pozos que no han dejado de funcionar en los últimos cuarenta años, extrayendo 19 millones de barriles de crudo, calculando los técnicos reservas entre 80 y 100 millones de barriles. Aunque pese sobre ellos la fragmentación del yacimiento y su baja calidad.

En 2002, Repsol vendió la explotación a la empresa británica Northern Petroleum, produciendo hoy en día 165 barriles de crudo diarios. La composición química de este petróleo la ha convertido en combustible para industrias vidrieras de Cantabria y el País Vasco. a

**Lorea Madina**
Periodista


TAV
AHTgelditu!
ELKARLANA
EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA
IZURTZA
UDALA
www.izurtza.net • 94 681 35 48


46
DURANGOKO
Euskal Liburu
eta Disko
Azoka
2011ko abenduaren 4tik 8ra





# BARRUKO IBILBIDEAK

ARGAZKIAK: **TXELU ANGOITIA**

Bost gonbidatuek barruko bidezidorretatik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletatik.

Paisaia ikusgarriak alde batera utzita, leku xumeetara eta intimoetara begiratzeko gonbitea egiten digute, eurentzat oso bereziak diren bazterretara gerturatzeko keinua.

Sarritan bakoitzaren haurtzarora egiten dute bidaia. Rilke poeta handiak esan zuenez, horixe omen da "gure aberri bakarra".

Munduko lekurik kutunena denez, euren burua horra loturik dago. Leku hori gure jatorria izango da urliarentzat; helmuga sandiarentzat; eta ametsen lurralde hauskorra berendiarentzat.

Ale honetara ekarri ditugun gonbidatuentzat toki horiek Durangaldean daude.






















Ura eta basoa, ura eta zuhaitzak.
Bazter basatia, umela, ixila, goxoa…

Hemen, urolak Arri errekaren ibai-ertzetan
utzitako Oizko hare multzo xehetan, azkonar,
azeri eta orkatzen oinatzak sumatzen dira.

Sarritan etortzen naiz hona gautzen denean.
Eta zataren hegazkadarekin batera nire eboluzioaren
pausu guztien lorratzak sentitzen ditut.

Itxasoan sortutako biziatik duela 3.000 miloi urte,
gure espeziea, "homo sapiens sapiens garatu arte,
duela 200.000 urte Afrikako oihanetan.

Milioika urteetan eboluzioa bete duten
pausu guztiak ez dira desagertu.

Gehitu egin dira "nolabaiteko kate geldian unez uneko lerroan",
eta gaur, nire burmuinean daude, geenetan.

Ezin ahaztutako sentsazioak dira.
Eta une horretan, inguruko bizidun guztiak,
nire bidelagunak direla jabetzen naiz.

**XEBERRI** | *SARRIA*



Txikitan gure etxetik (Kukutze baserritik) tontorrera joaten giñan, Sarratuko tontorrera.
Handik dana ikusten gendun; egunez, inguruko mendi eta herriak eta gauez zeruko izar guztiak.

Durangon bizi naizenetik barriz, hankak Tabira alderantz joaten jatez beti,
ingurua atsegina egitez jat.

**NEKANE BEREZIARTUA** | *DURANGO*







Nik, neure bizimoduko une batean egin behar izan
nuen ibilbide garrantzitsu baten gogoeta da.

Urkiolan bada Letonakorta izeneko eremu bat.
Eraikin bik osatzen dute:
Txabolakue baserria eta Toki Alai, ostatua izandakoa.
Gaur egun Urkiolako Parke Naturaleko Arreta
eta Zuzendaritza guneak direnak.

Bizkaiko baserririk garaiena (800 m. inguru) da Txabolakue
baserria eta bertan jaiotzeko ohorea izan nuen,
sei urterekin bidaia bat egitera eraman ninduten arte.

Hirukurutzetatik beherantz, Txakurzulo eta Santidxenetik
galtzadan behera, Jarlekuen atseden aldi bat hartu
eta Oletxeburutik Atxartera. Handik km. batera dago
Kamiñokue baserria. Bertan bizi izan naiz
hogeita bat urtez nire guraso eta neba-arrebekin.

**JOSE ANTONIO AZKORBEBEITIA** | *ABADIÑO*



Plaza txiki hau etxetik ondo-ondoan daukat, berrogeitamar pausora, eta bere ondotik pasatzen naizen bakoitzean, bertako urmaela ikusi eta gogoa sentitzen dut ondoko eserleku batean jarri eta uraren hotsa entzuten geratzeko, hain da-eta lasaigarria!

Bidean gora eginda, ostera, Txantxibiri kalearen kartela ikusiko duzue eskuineko horman, konpondu berri eta sekula baino ederragoa. Bertan bizi naiz ni, geranioz inguratuta. Gonbidatuta zaudete!

**IDOIA LARRAÑAGA** | *ELORRIO*







Ez dakit azaltzen zergatik, baina Askorroste inguruak beti sortu izan du zerbait berezia nigan.

Beharbada aitite eta amamaren Askorra baserrira joaten ginen haurtzaroko oroitzapenengatik izango da.

Goiko aldean dauden adaburu itxurako pinuak arreta deitu didate beti. Uste dut ez dagoela Zaldibarren hainbeste argi eta kolore duen beste lekurik ilunabarrean.

**RAFA IRAETA** | *ZALDIBAR*



TAV
AHTgelditu!
EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA
Atxondoko Udala
www.atxondo.net
946 82 10 01




+Info: 94 603 39 38
turismo@durango-udala.net

## Egin jauzi Durangora

Paisaia harrigarriez gozatzeko bideak, gure ondare historikoa eta gure mitologia berriz aurkitzeko hiri ibilbideak... eta, beti bezala, eskaintza kultural eta gastronomikorik onena.

Zure zain gaude asteburu ezin hobea igarotzeko.

## Déjate caer por Durango

Recorridos diseñados para disfrutar de paisajes sorprendentes, rutas urbanas para redescubrir nuestro patrimonio histórico, nuestra mitología... y, como siempre, la mejor oferta cultural y gastronómica.

Te esperamos para un fin de semana perfecto.

# ATXONDO HIRURAK BAT

TESTUA: **OIHANE BURUAGA DE SANCHA**

1961eko azaroa: Beraien udal-lurrei eransteko irrika zuten inguruko herrien presioak, ekonomia egoera kaskarrak eta Axpe, Arrazola eta Apatamonasteriok zeuzkaten errekurtso eskasak herri hauen etorkizuna zalantzan jartzen zuten. Egoera honek hiru elizateen desagerpena ekar zezakeen, geografikoki lotuta eta sentipen bakar bat zuten herrialdeen desagerpena hain zuzen ere. Gauzak horrela ahaleginak, lurrak eta auzokideak batzea erabaki zuten Atxondo izeneko herrialde berri bati bizia emateko. Bateratze prozesu honetatik berrogeita hamar urte pasatu dira, baina antzinako herrialde bakoitzaren izpirituak gaur egun ere bizirik jarraitzen du. Zergatik?

Anboto mendiaren maldan, Mariren kobazuloa dagoen tokian, hor jarraitzen du 50 urte geroago Atxondok. Sortu zen momentuan, 1960ko hamarkadan, "Valle de Achondo" izena jarri zioten momentuko agintariek, baina bertakoek betidanik Atxondo bezala ezagutzen zuten eskualdea zen, hatzaren ondoko lurraldea bezala.

Bizkaiko ipar-ekialdean aurkitu dezakegu triangelu erregular itxuraz eta Aramaio (Araba), Elorrio eta Abadiñoko lurrekin limitaduak ditu. Bizkaiako tokirik ez lauena da Ibaizabal errekatik hasi eta Anbotoko mendikatera arte. Erliebe honek herrialdea bi zatitan banatzen du: alde batetik, industrialdea Apatamonasterion, komunikabideen inguruan baturiko biztanleria duen eremua eta bestetik, baserrietan banaturiko eta, batez ere, nekazaritza eta abeltzantza lanetan aritzen diren herritarrek osaturiko alderdia.


APATAMONASTERIO
+
ARRAZOLA
+
AXPE
Atxondo

1962ko uztailaren 5ean, Apatamonasterio, Axpe eta Arrazolaren borondatezko fusioa izan zen Atxondoko Aranaren izenpean. Hala ere, elkarketa honetara eraman zituzten arrazoiak ulertzeko 1961eko azarora jo behar dugu. Momentu horretan, Apatamonasterioko alkalteak, Claudio Urizarrek, baliabide ekonomikoen urritasuna nabarmendu zuen eta hau, 1961eko azaroaren 15eko udalbatzarrera eraman zuen.




Apatamonasterioko tren geltokia. Ca.1970.




Apatamonasterio. *Txelu Angoitia.*

Urte horietako idatzietan aitortzen da hiru herrialdeetako egoera ekonomikoa oso txarra zela eta gastu administratiboei aurre egitea gero eta zailagoa zela hirurak banatuta bazeuden. Honi lotuta, elkartasun geografikoa eta biztanleriaren anaitasun sentimendua arrazoitzen zen. Nahiz eta hiru elizate independiente izan, beraien biztanleek pentsamendu berdinak zituztela argudiatzen zen. XVIII. mende erdialdean ikus daitezke hiru herrialdeetako "elkartasun eta anaitasun"-ari buruzko lehenengo idatziak.

Honegatik eta 1952. urteko maiatzeko udal erakundeen araudi bat ("Reglamento Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales" izenekoa) kontuan izanda, eta ikusirik Axpe eta Arrazolako udalek elkarte honekin ados zeude-



> **“El Valle de Achondo es una incuestionable realidad, en la que los límites municipales hoy existentes son un simple accidente que en nada altera el sentimiento de tradicional hermandad de sus vecindarios.”**
> (Decreto sobre el expediente de fusión 10-11-1961)

la, batzorde berezi bat izendatu zuten. Batzorde honetan etorkizunean Atxondo bezala aurrera egiteko oinarriak idatzi zituzten.

Horrela, hiru elizateen arteko mugak desagertu ziren eta biztanleria eta aurrekontuak batu ziren. Fusioa onartuz gero, Atxondo 1021 biztanleko herri bat bihurtuko zen (284 Apatamonasteriokoak, 423 Axpekoak eta 314 Arrazolakoak). 23,41 $km^2$ hedadura izango zuen eta hiriburua Apatamonasterion kokatuko litzateke. 1962ko otsailean, hiru elizateko ordezkariek oinarri hauek berretsi zituzten eta beranduago, uztailaren 5ean, Espainiar estatuko Gobernu Sailak borondatezko fusioaren dekretua onartu zuen. Prozedura guzti hau azaroaren 4an bukatu zen, Atxondoko Udal berria sortu zen momentuan.

# Atxondo 60ko
# Retolaza apaiza









# o hamarkadan
# aren argazkietan

Atxondoko udalaren artxiboa.










## Etxe-erre batze

Historian zehar elizate hauen arteko elkartze sentimendua nabarmena da. Lehenengo eta behin, senidetasunean eta gero, eguneroko auzokideen erlazioan. Adibidez, Bizkaiako herrialde gehienetan ohitura zen baserriak suteetatik babestea. Sua momentu hartako gaitz handienetariko bat zen, etxe gehienak egurrezkoak zirelako. Horregatik sute bat egoten bazen auzokide bakoitzak dirua ematen zuen laguntza bezala.

Erreferentzia asko aurki ditzakegu honi buruz Axpe, Arrazola eta Apatamonasterioko auzokideen artean. Lehenengokoa 1758ko uztailaren 7an. Urte hone-



Axpe. *Txelu Angoitia.*




Atxondoko "Pullman" zaharra. *Eraz aldizkariko artxiboa.*

tan hiru herriekiko 155 etxeetatik, 121 su hermandadean elkartuta ageri dira. Anaitasun honek XVIII eta XIX. mendeetan zehar jarraitu zuen eta baita XX. mendean ere. 1994. urtean Durangaldeko eta Arratiako baserrien artean, "Etxe-erre batze"-aren ohitura berreskuratzen saiatu ziren Mendikoa baserriko sutea izan eta gero.

Hala eta guztiz ere, hiru herri hauen historian ez zen dena elkartasuna izan. Tentsio handiko momentuak eta desadostasun puntuak ere egon ziren, gehien bat lurralde mugen banaketan. Mendia oso garrantzitsua izan da Atxondoko auzokideentzako eta honek, arazoak ekarri zituen Elorrio, Abadiño eta Aramaioko herrialdeekin, baina baita hiru elizate hauen artean (gehien bat Axpe eta Arrazolako biztanleen artean). Bi herri hauen arteko lehenengo arazoak XVI. mendearen erdialdean aurki ditzakegu. Besaide mendiaren banaketan izandako desadostasunengatik. XVIII. mendean ere gatazka honek aurrera jarraitzen zuen. Orduan, Arrazolako egurgile batzuk Axpeko lurretan sartu ziren eta hauek, Besaiden zuloak eginez erantzun zieten Arrazolako auzokideen gurdiei oztopoak jarriz. Elizate bakoitzak bere lurrak babestea nahi zituen eta kasu guztietan ika-miken protagonista mendia izaten zen.

## Bateratzea egin orduko alkateak eta Udalbatza

### Apatamonasterio

**Claudio Urizar Baseta** (fusioa martxan jarri zuen)
1962ko otsailaren 5ko udalbatzarrean onartu zuten.

### Axpe

**Marcelino Gorroño** 1962ko otsailaren 2ko udalbatzerrean baiezkoa eman zioten bateratzeari.

### Arrazola

**Mateo Uriza**r 1962ko otsailaren 4ko udalbatzerrean onartu zuten bateratzea.

### Momentu hartako idazkaria:

**Felipe Hernández Cruceta**

### Atxondoko lehenengo udalbatza

Marcelino Gorroño Gorozabal (Alkatea)
Julián Azcarate Medicoechea*
Victor Baseta Aguirre*
José Egusquiza Ibabe*
Ramón Larringan Echevarría
Justo Gorostiza Elguea*
Simón Urizar Aguirre*

*bateratzearen batzorde berezian parte hartu zuten.



| Bateratze prozesurako eginiko batzorde berezia | |
|---|---|
| **Apatamonasterio** | |
| **Claudio Urizar Baseta** | Alkatea - mahaiburua |
| **Julián Azacarate Medicoechea** | Zinegotzia |
| **Ismael Zarandona Foruria** | Zinegotzia |
| **Axpe** | |
| **Victor Baseta Aguirre** | Zinegotzia |
| **Justo Gorostiza Elguea** | Zinegotzia |
| **Florencio Urizar Orobiourrutia** | Zinegotzia |
| **Arrazola** | |
| **José Egusquiza Ibabe** | Zinegotzia |
| **Simón Urizar Aguirre** | Zinegotzia |
| **Agustín Ocaranza Azcarate** | Zinegotzia |
| Bateratze prozesua onartu eta gero MARCELINO GORROÑO GOROZABAL alkate izendatu zuten. | |












## Borondatezko elkartzea?

Atxondoko biztanleen arteko elkartzea historian zehar errepikatzen da, baina baita hauen arteko tirabirak, herri bakoitzari dagozkion lurrengatik, eta tentsio momentu hauek kontuan izaten baditugu bateratze prozesuan kontraesan asko aurkitzen dira.

Elizate hauen mugak istripu bezala definitzea errore bat da. Berrogeita hamar urte pasatu dira bateratze prozesutik, baina Atxondoko biztanleriaren ezaugarrietako bat bakoitzak Axpe, Arrazola edo Apatakoa dela esaten jarraitzen duela da, nahiz eta garai hartako fusio agiriek kontrakoa esan.

Herri bakoitzaren historia mendez mende kontuan izanda, nortasun eta pertenentzi sentimendua ukaezinak direla ikusten da. Gaur egun ere bizirik jarraitzen duen sentimendua. Gauzak horrela, jendeak zer pentsatzen zuen 60ko hamarkadan eta fusioaren momentuan?

Esaera zahar batek dio ulertzaile onari hitz gutxirekin nahikoa zaiola. Batzuetan keinu bat ere nahikoa da garai hartako sentimendua ulertzeko. Bateratzearen oinarriak jarri zituen batzordeko bederatzi zinegotzietako bat Victor Baseta Aguirre izan zen. Urte batzuk beranduago, Carmelo Oletxeak jarraitu zion, baina biek keinu berbera egiten dute: hatz erakuslea ezpainak izten. Hau da: diktaduraren isiltasuna. Zinegotzia izatea urte haietan ez zen kargu bat zama bat baizik, beraz, dena erabakita zegoen. Nork esango zion ezetz bateratze prozesuari, momentuko agintariek erabakia hartuta bazuten?

Astxiki Axpetik. *Txelu Angoitia.*



Axpe, Arrazola eta Apataren bateratzea gertatu zen garaia kontutan izatea oso garrantzitsua da. Diktadura baten barruan hartzen diren erabaki guztiak bezala, hiritarraren iritziak ez zuen axola: "Egin zen eta listo" eta alegia Atxondorekiko nortasun edo sentimendu falta erabaki diktatorial baten ondorioa da.

Bertako biztanleek ezin izan zuten bateratze prosezuan parte hartu. Gauzak horrela, batzuk uste zuten Axpe eta Arrazolako alkateek herria saldu zutela. Auzokide batzuk, ekonomia kaskarraren ondorio bezala ikusi zuten, baina beste batzuk boterea Apatamonasterion batzeko modu bat izan zela uste zuten, egia baita elizate honek komunikabide hobeak zituela, baina baita biztanle eta lur eremu murritzena. Beraz, bateratzetik onura gehien aterako zuena.

Dena den Arrazola, Axpe eta Apatarekiko pertenentzia sentimenduak bizirik jarraitzen du, eta baliteke 1962ko fusioari esker izatea. Atxondo, elizate hauen etorkizuna babesteko erabaki hoberena bihurtu zen. Horrela, hirurak bat izanda, herri bakoitzaren nortasuna eta ohiturak mantendu dira. a

**Oihane BURUAGA de SANCHA**
Kazetaria

# 2011ko BIBLIOGRAFIA

Hurrengo orrialdeetan Durangaldeari buruz 2011. urtean argitaratu eta Gerediaga Elkarteak kudeatzen duen Durangaldeko Dokumentegian kontsultagai diren liburuen zerrenda aurkituko duzu. Informazio hau, eskualdeari buruz ikerketa egiten dabiltzanentzat interesgarri izan daiteke. Seguru asko ez daude diren guztiak. Horregatik, artxibo lana egiten laguntzea eskerronekoa izango da.




**Durangaldea-Arratiako atlasa = Atlas de Duranguesado-Arratia**

ZENBAIT EGILE

*175 or. / Nondik / 2010*



**Lapikotxiki kantuz kulunkatzen**

Estibalitz GONZÁLEZ SOLOZABAL

*94 or. / …eta kitto! Euskara Elkartea / 2011*



**No lloréis lo que tenéis que hacer es no olvidarnos**

María GONZALEZ GOROSARRI eta Eduardo BARINAGA

*190 or. / Ttarttalo / 2010*



**Biografía y vivencias de un nonagenario**

Tirso LOSA SOLOAGA

*188 or. / 2011*



**Moroak gara behelaino artean?**

Joseba SARRIONANDIA

*709 or. / Pamiela / 2010*




**El escudo de Durango**

Jesús ITURRALDE

*96 or. / 2010*




## Berrikoia, 15 urtez ahots eta ispilu

ELORRIXOKO EZKER ABERTZALEA

*438 or. / 2011*




## Elorrio txapeldunen herria = villa de campeones

Ricardo AJURIA, José Luis ARRUABARRENA, Agustín URIZAR

*80 or. / Ikeder, S.L / 2010*



## Abadiñoko toponimia

AUZOLANEAN EGINDA

*245 or. / 2011*



## Durango Dantzan

Juan Antonio AROMA

*235 or- / Durangoko Arte eta Hª Museoa*



## Isabel Lertxundi Barañano

Bidegileak bilduma

*32 or / Eusko Jaurlaritza 2011*




## Gerra Zibila Otxandion

Zigor OLABARRIA OLEAGA

*239 or. / Eusko Ikaskuntza / 2011*




## Atzoko Hitzak Josten

Leire GOITISOLA ZUMARAN eta Amaia NICHOLSON GOROSTIAGA

*256 or. / Elorrioko Udala / 2011*



## Manual para una economía sostenible

Roberto BERMEJO

*455 or. / Catarata / 2011*



## Ondare Historikoaren Marrazkiak

Balendin LASUEN SOLOZABAL

*2011*




## astola 2007

**04·** NUESTROS FOTÓGRAFOS LOCALES / JOSE MARI URIARTE **18·** ANDRAZKOAK DURANGALDEKO JAI ETA DANTZETAN / IÑAKI IRIGOIEN **36·** LOBIANO, UN PALACIO EN ERMUA / ALBERTO SANTANA, IÑAKI PEREDA ETA DOLORES DEL MONTE **48·** EZKURDI, ESPACIO ARQUITECTÓNICO Y SOCIAL/ JON IRAZABAL AGIRRE **68·** AHT DURANGALDEAN ZEHAR **87·** IRAKASKUNTZA DURANGON XVIII. MENDEAN / IÑAKI BEITIA ETA ITXASNE SANGINES **100·** MOMOITIO / IÑAKI GARCIA CAMINO **116·** LA ARGIZAIOLA EN EL DURANGUESADO / RAKEL CILLA LÓPEZ **130·** AISTI / JESUS MARI ARRUABARRENA **140·** ABADIÑO OINEZ / JOSE INAZIO ARRIZABALAGA




## astola 2008

**08·** SORGINKERIA DURANGOKO MERINDADEAN / IÑAKI BAZAN DIAZ **24·** GARAI, ATALAYA DE LOS ZUBIAURRE / REBECCA GUERRA **38·** “OTXANDIOen” LAN ABENTURA / ENRIQUETA SESMERO **52·** FUSILADOS DEL FRANQUISMO / JON IRAZABAL **70·** ELORRIO, UNA VILLA MEDIEVAL / DONA GIL **86·** DURANGOKO UDAL ARTXIBOA / JOSE ANGEL OROBIO-URRUTIA **98·** ROCK LOCAL / JUAN A. HERNANDEZ ETA IBAN GORRITI **114·** ARRIOLA, 20 URTE **128·** PORTAFOLIO / PABLO GARITAONANDIA **142·** ARDOA ETA ARRAINAREN IBILBIDEA / GUILLER RUIZ DE ERENTXUN




## astola 2009

**12·** DE AVIONES Y MAIZALES / JOSE MARI URIARTE ASTARLOA **32·** URKIOLA, 20 URTE **52·** TIERRA DE DURANGO / GREGORIO MONREAL **68·** ETORKINAK, LOS NUEVOS VECINOS / XABIER AIERDI, JOSEBA ATXOTEGI **90·** EL CASTILLO DE ASTXIKI / ARMANDO LLAMOSAS **112·** DULTZAINA / JON GAMINDE **126·** FUNCOR / IÑIGO AGIRRE **138·** PELOTARIS / JOSE MARI ETXANIZ **152·** BARRUKO IBILBIDEAK **166·** PORTAFOLIO / LUIS MADINA




## astola 2010

**12·** CRUZ DE KURUTZIAGA / JESÚS MUÑIZ PETRALANDA **28·** ARRAZOLAKO ETA AXPEKO MEATEGIAK / GARBIÑE AJA **40·** GAZTETXEAK / IBAN GORRITI / JAKUE PASCUAL **56·** BERTSOLARIAK 1950-60 / IGOR ELORTZA **66·** FUNDICIÓN / JULIÁN IZAGA **84·** ZINEMAGINTZA / J.J. BAKEDANO **96·** MARTIN DE BERATUA / JOSÉ ÁNGEL BARRIO LOZA **106·** OTXANDIOKO LIMITADUA / FERNANDO MARTINEZ RUEDA **118·** EL PALACIO ITURRI / IGOR BASTERRETXEA **126·** BARRUKO IBILBIDEAK **138·** BALNEARIO DE ZALDIBAR / MAGDALENA SARRIONANDIA **148·** MERIOAREN IBILBIDEA / JON IRAZABAL

## Gerediaga elkartea

### 46 urte durangaldearen alde lanean

Mila esker 2011. urtean gure lanean laguntzaile izan zareten guztiei, bereziki bazkide eta bazkide babesle diren udalei: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar.

*Hurrengora arte!*



bbk

Durangaldeko Adiskideen
gerediaga
elkartea

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia